



ARGIA

ALARMA GORRIA

Hizkuntza-politika aldatu edo euskara galdu



2.936 | 2025 / 10 / 26 | 4 €

02936
9 778402 139093



***"Digitalki ikasteak
ez ditu espero ziren
hobekuntzak ekarri"***

32 | TELMO LAZKANO



***Itxaro Bordak
eraikitako detektibeak,
hiru hamarkada***

44 | AMAIA EZPELDOI



LARRUN #311
**Energiaren
historia**

ARGIA EGUTEGIA 2026

Historia ahazten duen herriak bere akatsak errepikatzeko arriskua du, esan ohi denez. Baina baita, ongi egindakoak ere. Izan ere, etorkizunez kargatutako arma da historia.

Aurten ere, egunero efemeride bat.



40€ Euskarria

47€ Egutegia + Pago-egurrezko euskarria

12€ Egutegia

azoka.argia.eus
(+34) 943 37 15 45

ARGIA EGUTEGIA 2026
Egunero efemeride bat

ARGIA 2026
APRILIA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
1. EGUNA
2026ko apirilaren 11a
LARUNBATA

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€tik gorako erosketetan
Lasarte-Oriako egoitza irekita dugu 8:00etatik 15:00etara

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | IDOIA RODRIGUEZ
- 21 | CASTILLO SUAREZ
- 22 | ZIGOR ETXEBURUA

Finkoak

- 38 | KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

14 | **MIREN EGAÑA,** **EUSKAL ARRASTOEN PESKIZAN**

Donostiako etxean hartu gaitu Miren Egaña Goya irakasle eta hizkuntzalariak, egongelan: parean dugu Zurriola hondartza. Grabagailua martxan jarri, eta galderarik egin aurretik hasi zaio Danele Sarriugarteri kontu-kontari; bi ordu joan dira konturatu orduko. Kazetaria txundituta geratu da: hamaika bizitza kabitzen dira bizitza batean, eta Egañak zorrotz bezain umoretsu azaltzen ditu denak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Valentzia: kontzesionarioak distiratsu, auzoko eskolak oraindik lokatzetan

Urko Apaolaza

14 | EUSKARA

Iragarpen beltzak hizkuntza-politika ausarta eskatzen du

Jone Gartzia

32 | TELMO LAZKANO | ALTXA BURUA

“Teknologia pedagogiara egokitu beharrean, pedagogia teknologiara egokitze bidea egin da eskolan”

Mikel Garcia

36 | ANDREA ARRIZABALAGA

"Migrainekin eta bereziki emakumeek pairatzen ditugun gaixotasunekin asko dago egiteko"

Olaia L. Garaialde

44 | LITERATURA

Amaia Ezpeldoiren urratsen gibeletik, literatura bortuan

Patxi Gaztelumendi

48 | LITERATURA | 'HITZ ETENA'

Eraillko dutenaren literatura

Paul Beitia

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Beñat Badiola, Ekain Carrasco, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga.

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara.





Bakerik gabeko Nobela


María Corina Machado sionistazalea Bakearen Nobel saridun izendatzeak tu egiten dio oinarrizko giza eskubideen aldeko edozein asmo, erakunde edo ekintzaileri. Eta lehen unetik ez du ezkutatu: Venezuelako kolpistak saria Trumpi eskaini dio. Bake sarirako bere burua aurkeztu duen horri, bere herrialdean bertan hainbat hiritan armada hedatzen ari zen bitartean, migratzaileen aurkako sorgin ehizan lagundu eta bere politikekin ados ez dauden herritarrei aurre egiteko. Aurtengoa Bakerik Gabeko Nobeldunen zerrendara gehitu da, ondoko kideak biltzen dituen: gerra krimenen sustatzaile Juan Manuel Santos kolonbiarra, japoniar jatorriko 120.000 estatubatuar kontzentrazio-esparruetan sarrarazi zituen Henry Kissinger presidentea edota drone bidez historian pertsona gehien hiltzeko agindua eman zuen agintari Barack Obama. Bizi gaituen mundua orriotako irudiaren antzekoa da. Surrealista, baina aldi berean, sakonean, "ulergarria".

📍 Protesta bat AEBetako Immigrazio eta Aduanen Kontrolerako Zerbitzuen Agentziak Portlanden dituen instalazioen aurrean. **S. LAM / GETTY IMAGES**

📄 **AXIER LOPEZ**

Pilotakada batez masailezurra hautsi diote Aritz Ibarrari

 EKAIN CARRASCO TELLAETXE



Urriaren 12an Falangeak Gasteizen antolatu zuen elkarretaratzean, aurre egin zioten gazteen aurka oldartu zen Ertzaintza. Irudietan ikus daitekeenez, ertzain batek Aritz Ibarra ilustratzaileari tiro egin zion metro gutxira. Ondorioz, masailezurra apurtu diote, ahosabaia erori zaio, hortz bat galdu du eta beste bi galtzeko bidean da. Gazteak salaketa jarri du epaitegian. Hala, fiskaltzaren esku geratuko da kasua, eta bitartean, mediku eta abokatuekin bile-rak aurreikusi ditu.

Gertakarien ostean ospitalera joan zen Ibarra, artatu zezaten. Arratsaldean josi zizkioten ebakiak eta 24 ordura, hurrengo egunean, egin zioten ebakuntza. Ordura arte ahoa txikituta izan zuen eta sentsazioa "deskribaezina" dela aipatu du. Litekeena da pilotakadak lekualdatu zizkion ebakortzak ez osatzea; errekupeazioa "luzerako" doala azaldu dio ARGIAri.

Sare sozialetan elkartasun mezu ugari jaso ditu gazteak, baina azaldu duenez, oraindik ez da erakunderik berekin harremanetan jarri.

Bingen Zupiria Seguritasun sailburuak, urriaren 16an Eusko Legebiltzarrean prentsaurrean egindako agerraldi batean esan du ez dutela inongo salaketa-

"Nola da posible ertzainek eskoltatuta manifestatzea? Eta gainera Ertzaintza gure kontra oldartu izana?"

ren berririk. Ertzaintzak, bestalde, ohar bidez jakinarazi du "barne ikerketa" bat zabalduko duela.

Hispanitatearen Eguna deiturikoan gertatutakoaz Seguritasun sailak zabaldu zuen bertsioan, zauritutako eta kolpatutako ertzainak aipatu zituen soilik. Ricardo Ituarte sailburuordeak Falangearen elkarretaratzeari aurre egin zioten gazteak "euskal faxistak" zirela esan zuen.

Aritz Ibarra "harro" agertu da elkarretaratzeari aurre egiteagatik. Bere hitzetan, "probokazio hutsa izan zen, iraingarria". Gaineratu du arduradun politiko eta instituzionalen "arduragabekeria" salatzeraz atera zirela kalera, Falangearen elkarretaratzea baimentzeaz gain, Ertzaintzak "babestu" egin zuelako: "Nola da posible ertzainek eskoltatuta manifestatzea? Eta gainera Ertzaintza gure kontra oldartu izana?". Zentzu horretan, gazteak uste osoa du ertzainek "amorruez eta mendekuz" jo zutela. ●

Hilketa matxista Zarautzen

 EKAIN CARRASCO TELLAETXE

Hilketa matxista izan zen Zarautzen, urriaren 15 gauean: 47 urteko gizon batek 53 urteko emakumea hil zuen, itota. Urriaren 16tik atxilotuta zegoen akusaturia, hilketa matxista leporatuta. Egun bat geroago, 17an, atxilotua hilketa gauzatu zen etxebizitzara eramane zuten ertzainek, gertaerak argitzeko asmoz. Ondoren, komisiariari itzuli eta han izan zuten asteburuan. Azpeitiko guardiako epaitegira eramane zuten urriaren 19 goizean, eta akusaturia bere testigantza eman ostean, epaileak behin-behinean espetxeratzeko agindua eman du. EFE albiste agentziak jakitera eman duenez, gizonak aurrekariak ditu indarkeria matxistagatik.

Gertakarien harira mobilizazioak izan dira Zarautzen. Udalak Lege Zaharren plazan deitu zuen elkarretaratzea, eta ondoren Mugimendu Feministak eta Itaiak deituta manifestazioa egin zuten. Gainera, hainbat udalerritan elkarretaratzeak egin dira hilketa salatzeke. Beste zenbait erakundek ere beren gaitzespena adierazi dute, hala nola Emakundek, Eudelek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain zuzen ere, aldundiak kontzentrazioa egin zuen Donostiako Gipuzkoa plazan.

Zarauzko Udalak, atxilotetatik gutxira bozeramaleen batzordea egin zuen eta adierazpen instituzionala onartu zuen aho batez. Erasoa gaitzetsi eta "laguntza eta elkartasun osoa" helarazi dizkie emakumearen senideei eta gertukoei. Horrekin batera, adierazi dute emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeke, herritarren jarrerara aktiboa "ezinbestekoa" dela.

Gipuzkoako Aldundiak ere "ahotsa altxatzeko" deia zabaldu du, Eider Mendozak Gipuzkoako diputatu nagusiaren bidez: "Ahotsa altxatu behar dugu, inoiz baino ozenago, emakumeen aurkako indarkeriak gure gizartean eta munduko beste inon ez duela lekuri berresteko. Ez gara geldituko erabat desagerrarazi arte". Eudelek ere erakundeek eta gizarte osoak duten "erantzukizuna" azpimarritu du, eta sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak indartzen jarraitzeke premia nabarmendu du. ●

BERRIKETA GUTXI

EZ HANKA EZ BURU

 **ADUR LARREA**
www.adurlarrea.com

Ventolin



IMANOL EPELDE
27zapata.eus

Ventolin kolpe batek lagundu egiten dio arnasa uneren batean hartu ezinean dabilenari. Baina, botika horrek ez dio askorik lagunduko biriken hiru laurdenak funtzionatzen ez dionari. Horrela bizi gara euskaldunok. Gurea ez da asma, gripea. Minbizia da. Onkologiko bat behar dugu. Eta ordenagailu kuantiko bat. Kapital bakoitzean.

Proiektzioak ez dira baikorrangoak: 2036an ia arnagunerik ez dugu izango eta erdara nagusi den eremuetan biziko gara. Laster, Azpeitian ere ezingo dugu txistorrik lasai jan. Horregatik ere antolatuko zuten arnaguneei buruzko nazioarteko konferentzia bat aurreko astean. Inork ez du zalantzan jartzen hil ala bizikoa denik arnaguneak izatea hizkuntza bat bizitzeko. Altxa dezala eskua ados ez dagoenak.

Orain, demagun 20 ikasle dauzkadala gelan. 4 dira etxetik euskara dakartenak. 4 horiek lan-talde berean jartzen badituzte, gelako euskararen erabilera %25ekoa izango da. Lau horiek gainerakoen artean nahasten badituzte, %0. Erdara nagusi den eremuetan dinamikak erdarara bultzatzen du. Badakigu euskaldunok zerbait horretaz. Orduan, zergatik ez ditugu bilatzen arnaguneak ikastetxean, auzoan, herrian?

Itota bizi gara. Eta hala ere, nahastu egiten ditugu ikasleak eta gelak. Guri umetan herri menderatua ginela kontatzen ziguten, espainolez egiten zuena espainola zela. Eta espainola izatea zerbait terriblea zen. Kontuz kamiseta horiak eta galtza motz gorriak konbinatzearekin. Orain, gizarte plurala gara. Ez dago hizkuntza zapalkuntzarik, eleaniztasuna baizik.

Burges klasisten apeta gutiziatsua ote da euskaraz egiteko hautu irmoa egiten dutenen seme-alabak elkarrekin egotea? Zergatik bihurtu da tabu komunitate batek trinkotu egin behar duela esatea bera ere?

Autopsiarako frogak egiten dizkigutenean, modu naturalean hil ginela esango digute. Hizkuntza oso zaharra zen euskara, badakizue. ●



Zebra eraikinak



ULA IRURETAGOIENA

Etxebizitza eraikin batek zinta beltz eta zuriekin osatzen du bere fatxada. Deskribapen honek gertuko etxebizitza bloke baten irudia ekartzen digu denoi gogora, berdin dio Hego Euskal Herrikoa izan edo espainiarra. Hainbeste ugaritu dira halakoak, ezen “zebra eraikina” ezizenarekin bataiatu dituela publikoak. Etxebizitza promozio askoren irudi erakargarria omen da zuri-beltzeko marraduna, eta salmenta marka gisa erabiltzen ari dira higiezin marketinekoak, moderno itxura eraikitzeko. Arkitekturarik ez, eta sinatzen duen arkitektoa arkitektura egin gabe eraikitzen, sustatzailearen morroi.

Zebra eraikinena ez da soilik auzi estetikoak, etxebizitza eraikuntzaren beste drama baten erakusle ere bada. Modu azkarrean eraikitzeko estilo bat da. Eta horren ondoren dator eraikuntzaren kalitate konstruktiboaren maila baxua, etxebizitzaren garestitzeari beste egoera larri bat gaineratuz. Etxebizitza politikak etxebizitza berriak behar direla diotenez, etxebizitzak txurroen makinarian sartu dira. Eta etxebizitza-sustatzaileen diru-goseak mugarik ez duenez, arkitekturan aurrezten den bezala, eraikuntza-epeetan ere murrizketak egiten dira. Inkusio administrazioak goraiatzatzen du etxebizitza eraikin baten eraikuntza epe azkarra, lan on baten parametro bat bailitzan. Eraikuntzan gabiltzanok ondo dakigu zer esan nahi duen eraikuntza-epeen laburtzea: espazioen kalitatea beharrezkoa modu esponontzialean eta eraikuntzako langileen lan baldintzen prekarizazioa (migratzaile askoren ogibidea). Eraikuntza lan onak denbora behar du, arkitekturaren helburuak zehazteko testuinguru eta erabilera jakin baterako, diseinua garatzeko ondoren, eta eraikitzeko.

Inoiz ez da hainbeste eraiki hain material kalitate txarrekin. Zentzugabeko prezioak ordaintzen ari gara inoiz baino kalitate txarragoko etxebizitzengatik. Baina eraikuntza-arazoak ez dira epe laburrean etorriko; etorkizuneko belaunaldiak aurre egin beharko diote etxebizitza parke eskas honen oinordetzari. ●



Oraingoz ez, baina geroz eta hurbilago

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Interes osoa zuen RN eskuin muturrak urriaren 16ko zentsura mozioaren gailentzean: zentsura pasaz gero, Macronek abisatua zuen Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak bideratuko zituela. Egoera ezin hobea, duela urte bat egindako indar erakusketa berresteko. Iazko ekainaren 9an Legebiltzarra desegin zuen Macronek eta lehen aldikoz atera zen garaile Marine Le Penen alderdia, botoen %33 lorturik (bidea moztu zitzaion, ordea, bigarren itzulirako RNren parekoarentzat bozkatzeko manua eman zelako ezker muturretik hasi eta eskuinera arte). Garaipena ekarriko zion urrezko plater gisa zeukan zentsura mozio hori eskuin muturrak: ezkerre erabat zatituta, Macron ere bakartuta eta LR eskuin tradizionala ere indargabetuta, baina macronisten ondoren bizirauten. Paisaia politiko horretan nola ez zituen nahiko huteskunde horiek?

Baina ez da nagusitu zentsura mozioaren aldeko olatua, hemezortzi botorengatik: 271 diputatuk bozkatu dute LFI Frantzia Intsumisoaren zentsura mozioaren alde, eta 289 ziren behar Sébastien Lecornuren gobernuaren erorarazteko. PS Alderdi Sozialistari esker segitzen du –oraingoz– zutik Macronen inguruak. Erretretan erreforma 2027ko presidentzialak arte indargabetzeko eta Konstituzio 49,3 artikulua ez baliatzeko bermeak lorturik, ez zentsuratzeko ardura hartu zuen PSk –zazpi diputatuk desobeditu diote alderdiari, tartean, talde parlamentario horren parte den Peio Dufau abertzaleak–.

Bozketa egin bezain laster, “anti-sistema alderdi” gisa aurkeztu zuen bere burua RNk. Beste behin “anti-sistema”. Alta, bozketei begiratuz gero, datuak argiki mintzo dira: gobernuak aurkezturiko lege proiektuen %90en alde bozkatu du. “Vendus!” [“salduak!”] oihu artean hitza hartu zuen Laurent Baumel sozialistak. RN diputatuak zebiltzan oihuka, baita ezker muturreko LFI Frantzia Intsumisoako diputatuak ere. Hori da urriaren 16ko bozketaren beste ondorioa: ezkerre inoiz baino zatituagoa ageri dela. Gobernuak zutik atxikitzea bezainbat, PSren babesarekin lortu dute ezkerre bateraezin gisa azaltzea. Duela urte bat ezkerretik osaturiko Fronte Herriar Berriaren batasuna irudikatzea nekeza zaigu gaur egun. Iaz ere zaila zen horretan sinestea, baina lortu zuten, RNren arriskuaz kontziente. Ezkerrean ilusio handia sortu zuen fronte horrek, baina laster agertu zitzaizkion arrakalak, eta gaurko egunean erabat apurtuta dago.

Ikusteke dago nola aitzinatuko den Lecornuren gobernuak. Dena dela, argi gelditzen ari da kosta ahala kosta ari dela Macron 2027ko presidentzialetara heldu nahian. Eta urrats guziz RNri indar gehiago ematen dabil. ●

200

salaketa baino gehiago jarri dituzte Biarnoko Lestelle-Betharramgo ikastetxe katolikoan izandako indarkeria fisiko eta sexu erasoen biktimek. Kongregazio franko-italiarrak iragarri du kalteordaina emango diela, bere erantzukizuna onartu ondoren.

6.000

lagun kontrolatu ditu martxotik Frantziako Poliziak Bidasoaldeko mugan. "Presio migratorioa kontrolatzeko eta trafikatzailerak deuseztatzeko" dispositiboak martxoaren 27an jarri zuten martxan, eta 350 agente mobilizatu dituzte. Operazioak aktibo jarraitzen du oraindik.

%25,16

izan da Iruñeko euskarazko haurreskolen eskaria aurtengo aurrematrikulazioetan; iaz %19,18 izan zen. Euskarazko eskaintzak gora egin du eta horrek ekarri du eskaria ere nabarmen handitzea.

"Lehen sendagarriak ziren gaitzak hilgarriak bihurtzen ari dira"

ANA GALARRAGA

2018tik 2023ra %40 hazi da bakterioek antibiotikoekiko duten erresistentzia, OMEren arabera. Datuak "kezkagarriak" direla adierazi du Elhuyar Fundazioko zientzia komunikatzaileak.

ARGIA.EUS (2025-10-17)



"DEMOKRAZIA ARRISKUAN DAGO; HORREN ADIBIDE DA DONALD TRUMP POLITIKAREN ERDIGUNERA ITZULI IZANA"

ZERO POBREZIA PLATAFORMA

2025-10-14

"Durangoko Azokak kultur eredu herritarrarekin egiten du bat"

BEÑAT GAZTELURRUTIA

Gerediaga Elkarteko koordinatzailea

Durangoko Azoka aurkeztu dute. Abenduaren 5 eta 8 artean egingo da aurreten.

2025-10-16



Periferiak hurbiltzen



DIANA FRANCO

Herriko jaietako txosnetan, Odei, Lapurdiko hip-hop taldea entzun dut. Ez pentsa, ez naiz hain modernoa, baina batzuetan nire ohituren kobazulotik irten eta holako sorpresak aurkitzen ditut. Euren abestietariko batek euskararen periferietan bizitzearen inguruan hitz egiten du: euskaldun berri etiketaren betikotzeaz, muga eta zentralitatea denaz... Hizkuntzaren periferia-koak parte sentitzearen erronka problematizatzen du abestiak.

Abestia oso iradokitzailea iruditu zitzaidan, eta entzuten nuen bitartean, aste horretan izandako bilera etorri zitzaidan burura. Bilera hartan, gizartearen periferiatan lanean ari diren zenbait eragile bildu ziren: lanean ari direnak bazterkeria sozioekonomiko arriskuan dauden kolektiboekin, indarkeria matxista jasaten duten emakumeekin, ezgaitasun fisiko zein neuronalak dituztenekin... Bakoitza bere borrokan oso sartuta, gainontzekoen borroka urrun; periferien periferiak.

Abestiak aldarrikatzen duen periferietatik mintzatzeko beharrak gogoratu zidan periferian daudenek elkarrekin mintzatzeko duten beharra. Pentsatu nuen zeinen konplexua den gizarte eremuan diziplinarreko begirada izatea, ezagutza larregi behar direlako. Baina askotan, pertsona bakar baten baitan, eragileek modu bakanduan lantzen dituzten arazo guztiak ikusten ditugu: bortizkeria, ezgaitasuna, pobrezia, arrakala digitala...

Periferiak hurbiltzen, periferiak elkarrekin mintzatzen, errealtate baztertzailerak eragiteko bideak eraiki daitezkeela uste dut, periferietan dagoelako, inon baino gehiago, mundua modu kritikoa begiratzeko gaitasuna. ●

MOTZEAN

Jone Forcada hil da Donostian, 92 urterekin eutanasiaren protokoloa aplikatuta, berak hala erabakita. Bizitza osoa eman zion herrigintzari eta euskararen aldeko borrokari. Oso ohikoa zen Donostiako protesta eta ekimenak babesten Forcada ikustea.



Gaixotasun luze baten ondorioz, 74 urterekin hil egin da Jakes Esnal, Donibane Lohizuneko preso politiko ohia. 2022an aterata zen Lannemezango kartzelatik, atzean 32 urte eta erdi lagata Frantziako kartzeletan.

Subflubialaren aurkako manifestazioak ehunka lagun bildu ditu Bilbon. Getxo eta Portugalete elkartuko lituzkeen ibai azpiko tunela gelditzeko eskatu zuten. Proiektua "antisoziala eta ekozida" dela salatu zuten.

Urriaren 10ean hedabideek oihartzun handia eman zioten albiste bati: Sapa armagintzako euskal enpresak AEBetako armadarentzat 7.000 auto-blindaturen ekoizpenean parte hartuko zuen. Ikerketa batek agerian utzi du albistea gezurra zela.


Basque Culinary Centerrek Donostian duen bigarren egoitza inauguratu du, "gastronomia eta sukaldaritza" sustatzeko helburua duena. Donostiako hainbat eragilek protesta egin dute, "operazio urbanistikoak ekarriko duen espoliazioa" salatzen.

Sakana Bizirik plataforma berria aurkeztu dute Altsasun, besteak beste, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas (CPV) lantegian abiarazi nahi den erraustegiari aurka egiteko. "Bizitzaren eta lurraldearen defentsan aritutako tradizio luze baten parte" da plataforma.

Urriaren 18-19ko asteburuan gutxienez 36 palestinar hil zituen Israelgo armadak Gazan, Rafah hirian izandako tiroketan bi soldadu israeldar hil eta gero. Ondoren, "su-etenaren aplikazioa" berriro indarrean jarri duela jakinarazi du Israelgo armadak.

Palestinaren aldeko olatuak hartu du Hego Euskal Herria

Urriaren 15ean, Israelen genozidioa salatzen eta Palestinarekin elkartasuna adierazteko egunak jendetza mobilizatu zuen. LABen esanetan, 110.000 pertsonak baino gehiagok hartu zuen parte Hego Euskal Herriko hiriburuetako eguerdiko mobilizazioetan. Arratsalde eta iluntzean ere milaka pertsona irten ziren kalera, Gernika-Palestinak eta Palestinarekin Elkartasunak deituta.



📷 D. BLANCO, M. ORTEGA, M. MORENO,
A. KORRES, LAB, IKAMA, IKASLE
ABERTZALEAK, EKINKLIK

VALENTZIA: KONTZESIONARIOAK DISTIRATSU, AUZOKO ESKOLAK ORAINDIK LOKATZETAN

Urtea pasa da Valentzian denborale batek inguruak txikitu eta berrehun hildakotik gora utzi zituenetik. Baina urtebete ondoren, kalte larriak jasan zituzten herrietako auzo txiroetan jarraitzen dute berdinetan. Aldiz, merkatalguneak aspaldi ireki zituzten eta enpresa handiei diru-uholdea iritsi zaie. Deitu krisi ekonomiko, deitu Covid, deitu *dana*, hondamendien ondorena ere klase kontua baita.

 URKO APAOLAZA AVILA

Raval izena ezin egokiagoa da momentu honetan auzoarentzat. Algemés herrian dago auzo hori, Valentzia hegoaldeko periferia baino are hegoalderago. 2024ko urriaren 29ko uholdeek bete-bete harrapaturiko arrabal –aldirietakoa, periferikoa den etxe multzoa– horretan, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako eskolan pizarra hutsik dago, eta zorua, lokatz geruza zartatu bati erantsita.

Irudi hori erabili du *La Directa* hedabide katalanak hondamendiaren urteurrenaren harira landutako *Viure després de la dana, una qüestió de classe* (Bizitza goidiaren ondoren, klase kontu bat) kazetaritza-ikerketa lana zabaltzeko. Ondoan, beste irudi bat: Mercedes-Benz luxuzko autoen kontzesionario bat hortik ez oso urrun, erakusleihoak eta logo biribil handi bat distiratsu dituela. “Algemesítik ibiltzen bazara, apenas ikusiko duzu denboralearen orbainik, baina Ravalen *dana*-k gogor irauten du”, azaldu du bizilagun batek ernegaturik. Eskolak barrakoi batzuetan eman behar izaten dituzte oraingoz.

Ester Fayos kazetariak Goi-geruzetako depresio Isolatuak –Goidi edo gaztelaniazko hizkiz *dana*– kalteturiko herrietako auzo txiroetan barrena egin du horrelako eta antzeko testigantzak jasotzeko. Baina gainera, erakundeek orain arte emandako dirulaguntza publikoei jarraipena egin die, eta ondorioa garbia da: “Goidiak eragindako multinazional batzuek, 2008ko krisian

bankuek edo pandemian sektore turistikoa izandako jokabide bera izan dute: desegonkortasun momentuetan, politika publikoetatik probetxua ateratzen dute erreskatatuak izateko, eta orain maila lokalean ikusten ari gara hori”.

Alfagar (Horta Sud) herriko Orba auzoan kokatu gaitu orain Fayosek, hangoek Parc Alcosa deiturikoan. Etxabe batzuk berreraiki dira, beste batzuk bidean daude, baina lokal gehienetan, lehen fruitu-denda edo ile-apaindegi bat zegoela adierazten duen kartela besterik ez da ikusten: “Jende pobreena ahaztu dute, etxera itzuli ezin izan dena edo negozioa berriz irekitzerik ez duena”, dio Fernando Gonzálezek.

Gonzálezek kasua paradigmaticoa da: etxea eta ondasun guztiak galdu zituen, baina apenas jaso ditu 6.000 euro Valentziako Gobernutik eta 9.000 euro Espainiakotik. “Pobreziak dakar jende askok ez edukitzea sarbiderik laguntza publiko guztietara”, azaldu du Joan Nacherrek, Ribera Altako berreraikuntzarako tokiko asanbladako kideak –halako asanbladak sortu dira han eta hemen Valentziako Hortan, ekonomia sozial eraldatzaitetik parte-hartze espazioak zabaltzeko asmoz–.

2024ko urriko uholdeak kaltetutakoei laguntzeko, Espainiako Gobernuak, orain arte 16.000 milioi euro bideratu ditu norbanakoentzat, autonomoentzat zein enpresentzat; baina 2025eko uztaila amaieran 6.000 milioi besterik ez zeuden banatuta, %37. *La Directa*-ren arabera,

ordea, kopuru horretatik Konpentsazio-rako Aseguruen Partzuergoak jarritakoa kenduz gero, zuzeneko laguntzak 2.552 milioi besterik ez direla ikus liteke. Eta gauza bera gertatzen da Valentziako Gobernuaren diru-laguntzekin: abuztura arte aurreikusitakoaren %36 baizik ez zuen partitu Carlos Mazón buru duen gobernuak.

HANDIAK ETA XICOTETE-AK

Jarrai dezagun testigantzekin. Javier Bort, Catarrojakoa, pintura-denda baten jabea, 54 urte. Ezin izan du bere negozioa ireki urak irentsi zuelako: “Dendan kalteak hainbestekoak ziren, bere garajea egokitu behar izan zuela, behin behinean pinturak saltzen jarraitzeko”, azaldu digu Fayosek; garajea lokatzak 1,30 metroko altuera “besterik” ez zuen hartu. Bort kexu da burokrasia handia behar delako laguntzak jasotzeko, eta handiek posible duten bitartean, “gu bezalako *xicotete*-ak galduta gaude”.

Globalizazioaren Zorraren Behatoki-ko (ODG) Júlia Martí ikertzaileak aho-bizarrik gabe esplikatu du zer ari den gertatzen: “Enpresa handientzako laguntzak oso azkar eman dira, emandakoaren kopurua fakturazioaren arabera delako, jasandako kalteen arabera baino. Hau da, milioi askotako etekinak dituzten enpresa transnazionalak ehunka milaka euro jaso dituzte laguntzetan”. Adibidez, 10 milioi euroko sarrerak dituen





enpresa batek 150.000 euro jaso ditzake, itzuli behar izanik gabe.

Horrela uler liteke, dirutza hori jaso dutenen artean jadanik euren jarduna berreskuratu duten marka arras ezagunak aurkitzea (Heineken, Adidas, Kiabi, Decathlon, Consum, Sprinter...), baita beste marrazo batzuk ere: Acrismatic apustu-etxea, munduko lider den Cimsa zementu konpainia turkiarraren fabrika, Florentino Pérezen ACSren enpresa filial bat, FCC eraikuntza multinazionala...

Bermeen bidez laguntzak jaso dituzten multinazionalak ere ez dira gutxi, automobilgintza sektorekoak kasu. Adibidez, Valentziako kontzesionario handiena den Marcos Automoción konpainiak zazpi milioi euroko bermea jaso du. Mercadona hornitzen duten bazkideek ere jaso

dituzte antzeko bermeak, baita urpean geratzeagatik famatu egin zen Aldaiako Bonaire merkatalguneak ere, Espainiako Estatuko handiena omen dena. Hala, due-la urtebete suntsituta geratu ziren merkatalgune eta industriak irekita aurkitu ditu *La Directa*-ko lagunak, berdin Bonaireko nola Alfafarreko merkatalgunea edo La Silla herriko industriagune handia.

COVID-19arekin gertatu zen bezala, Valentziako goidiarekin "badago joera bat enpresa handiak erreskatatzeko, gaitasun handiagoa dutelako auzitara jotzeko, kontaktu hobeak dituztelako banku pribatuekin, eta diru hori itzuliko dutela sinesgarritasun finantzario gehiago ere bai", azaldu dio Nicola Scherer ikerlariak kazetariari. Bere ustez, beharrezkoa da ingurumen irizpideak kontuan hartuko

lituzkeen dirulaguntza sistema bat diseinatzea, larrialdi krisia eragin duten enpresek ez dezate qwgainera, hortik edan.

Beste kontu bat da gobernuek egindako urgentziatzeko kontratuekin gertatzen ari dena. Egungo araudiak baimentzen du, halakoetan, tramite asko bete gabe sinatu ahal izatea kontratuak, baina askoren "larritasuna" ezbaian dago. Nola uler liteke moto-zirkuitu batek edo autopistetak atsedenekuek lehentasuna izatea? Eraikuntza enpresei lanak esleitu zaizkie milioi askoren truke eta abiadura bizian. PW&C aholkularitzako erraldoiak, berriz, bi milioi euro jaso ditu berreskurapen ekonomikorako plan bat idazteko, "kapital pribatuak interes publikoetan infiltratzeko duen joeraren seinale", leitu daiteke erreportajearen. Aldiz, ODGren arabera, enpresa txiki eta ertainekin kontratuen %18 besterik ez du sinatu Generalitateak, %15 Espainiako Gobernuak.

Bitartean, "tokien berreskurapena are mantsoagoa da, auzoa umilagoa den heinean", azaldu du Fayosek. Hori gertatzen da, esaterako, Torrent herrian Murcia eta Albacete karriketan dauden etxe multzoekin, mamu itsu baten gisa jalgi zen Poio errekaaren ondo-ondoan. Uholdeek ekarritako arazoez gain, "lehendik bizi zuten marjinazioa" gehitu behar zaio inguruari.

Murcia *carrer*-ean aurkitu dugu Consolación Dual, gure hirugarren eta azken testigantza. Errekaren ertzean bizi zen, udalak eraisteko agindu duen 45 etxetako batean: "Udaletxeko teknikariak esan zigun itzuli gintezkeela, baina ez zigun inongo paperik eman, eta prentsak zioen arriskutsua zela...", orain GKE batek lagatako etxebizitzara lekutu behar izan da eta hiru hilabete behin berri behar ditu hor egoteko baldintzak. Beretzat ez dago itxaropenerako leiho distiratsurik. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Miren Egaña

EUSKAL ARRASTOEN PESKIZAN



6-7 URTEREKIN, DONOSTIAN, GIZON BATEK BINA DURO EMAN ZIZKIGUN KALEAN EUSKARAZ HITZ EGITEAGATIK



Etxean hartu gaitu Miren Egaña Goya irakasle eta hizkuntzalariak, egongelan: parean dugu Zurriola hondartza. Grabagailua martxan jarri, eta galderarik egin aurretik hasi zait kontu-kontari; bi ordu joan zaizkigu konturatu orduko. Txundituta geratu naiz: hamaika bizitza kabitzen dira bizitza batean, eta Egañak zorrotz bezain umoretsu azaltzen ditu denak. Jarraian, pusketatxo bat.

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

1946an jaio zinen, Donostian. Nola oroitzen duzu haurtzaroa?

Ostegunetan, eskolarik ez eta, Errepadoren komentura dotrinara joaten ginen Grosetik bi neska. 6-7 urte izango genituen, eta *Abenida*-n [Askatasunaren hiribidea] zehar gindoazen, saltoka. Bagenekien ezin ginela ibili korrika eta are gutxiago euskaraz, diktadura baten pean baikeunden, eta euskara galarazita zegoen. *Abenida*-n kafetegi eta terraza ugari zeuden, gehienek zabalik zituzten toldoak, eta haiek ukitzeko saltoka gindoazen: “Nik gorria, nik urdina”. Halako batean, ia *Abenida*-ren bukaeran, gizon handi bat aurrean jarri eta ea zer ari gi-

nen galdetu zigun. “Gu, gu... ba toldoak saltatzen”, erantzun genion. “Eta nola ari zineten?” “Ba, euskaraz”. Bina duro [ba-koitzari hamar pezeta] eman zizkigun. Askotan pentsatu dut: zeini eman diote bere herrian bere hizkuntza egiteagatik dirua?

Euskararekiko lotura etxean jaso zenuen.

Euskal Herria kalean jaio nintzen, nire ama jaio zen etxe berean. Aita ere donostiarra zen, baina Antiguakoa. Aita gerra denboran kartzelan egona zen hiru urtez, heriotza-zigorra ezarri zioten, eta gero biziartekoa. Berak zioen: “Nire seme-ala-

bek ez dakit besterik jakingo duten, baina euskaraz bai”. Eta bere euskara egiten zigun, nire amak ondo ulertzen ez zuena; horrela, hizkera berezi bat sortu genuen berarekin hitz egiteko. Amarekin, berriz, udaran gaztelura igotzen ginen egunero [Urgull mendia], beste ama euskaldunekin batera ume euskaldunok euskaraz jolas gintezen.

Euskal Herria kalean jaio, eta bertan bizi?

Ez, 3 urte nituenean Gros auzora mugitu ginen. Euskal Herria kalekoa amonaren etxea zen, eta gure izeba bertan geratu zen berarekin. Familia handitzen ari zen



Miren Egaña

DONOSTIA, 1946



Irakaslea, hizkuntzalaria eta etnografoa. Kanadako euskal toponimian erreferentziatzeko ikerlaria da: 1985ean, Labradorrera egindako lehen euskal espedizioan parte hartu zuen, besteak beste. Magisteritza ikasketak egin zituen Donostian, eta hurrei euskaraz irakasten aritu zen klandestinitatean, besteak beste bere amak etxean zeukan ikastolan. Bitartean, Filologia Erromanikoa ikasi, eta Batxilergoko Euskara Katedra atera zuen. Irakasle-lanetan aritu zen 2006an erretiroa hartu zuen arte.

bestalde, bost baikinena jada, eta Karizano kalera joan ginen. Bertan ireki zuen amak [Maria Dolores Goya Mendiola] ikastola: maistra titulua lortu zuen 1932an eta gerra aurretik aritu zen ikastolan. Bitxikeria moduan, ikatz kalefakzio indibiduala geneukan etxe alokatu hartan, baina neguko egunetan ere ez genuen pizten. Etxeko ikastolan, egunero hartzen zituen 20 ume goizean, 20 arratsaldean, eta horiek nahiko berotzen zuten etxe guztia. Noizean behin, baina, lortzen genuen piztea, eta orduan eskatzen genion amari erretzeko zigarro bat, Ingalaterran gerrako umeekin egon zenean ikasi baitzuen. Bazekien zer zetorren ondoren: *My first story book* ingelesezko liburua –irudi bitxi eta guretzat ezohikoz hornitua–, txurroak eta Ingalaterrako historiak.

Zuk zeuk ez zenuen ikastolan ikasi.

Ez, eskola frantsesetan ibili nintzen, neska-mutilak elkarrekin, eta 10 urterekin batxilergoa egitera joan nintzen mojen eskolara, errejimen frankistak ez baitzituen ontzat ematen Frantziako ikasketak. Mundu erabat desberdina izan zen. Nik mutilak nituen etxean, bata zaharragoa eta bestea gazteagoa; haiekin jolasten nintzen edozer gauzetara: kaniketara, zibetara, txapetara, denetara. Eskolan ere bai, mistoa zen, garaian debekatua. Denak batera jolasten ginen edozer gauzetara, brileira [edo baloi errea] jolasten ginen, neskak eta mutilak, denak nahasita, ez neskak mutilen kontra. Askoz normalagoa zen.

Mojeekin zer moduz?

Mojetan jakin nuen, 11 urterekin, nire izena bitxia zela. Batxilergoko lehen urtean mojak nola deitzen nintzen galdetu zidan. Mirentxu Egaña esan nion; ez zitzaizela izena iruditzen esan zidan. Nire erantzuna zera izan zen: “Ni Miren bataiatua nago, baina epaitegian Mari Carmen jartzen du”. Hori bai egiazko izena, esan zidan. Moja marianistak ziren Aldapetakoak. Garai haietan eguneroko arrosarioaz libratzen nintzen, ingelesezko klaseetara joaten nintzelako akademia batera.

Eta horren ostean?

Errebalida egin nuen 14 urterekin. Horren ostean goi batxilergoa, peritutza edo magisteritza egiten ziren. Nik magisteritza egin nuen, eta 18 urterekin lanean ari nintzen bete-betean etxeiko ikastolan.

Ikasten segitu zenuen, hala ere.

Klaseak eman, gero nobioarekin atera, eta pentsatzen nuen: “Nire bizitza hau izango da?”. Rollo bat iruditzen zitzaidan, ez nuen bizitza sozialik. “Nik hemen beste zeozer egin behar dut”, pentsatzen nuen. Orduan, Deustuko Donostiako campusera jo nuen: bertan, gauez –hau da, arratsaldeko 7etatik 10ak arte– karrera bat egiteko aukera eman ziguten.

Nik historia egin nahi nuen, baina hemen ez zuten eskaintzen; bada, filologia erromanikoa egin nuen. Hori zen hemen, Donostian, genuen aukera. Egunez jarraitzen nuen klaseak ematen ikastolan, eta gauez joaten nintzen unibertsitatara karrera bukatu arte. Tartean, ezkondu nintzen eta bi alabak eduki nituen. Dena batera. Oso gazte nintzen, 24 urterekin ezkondu nintzen, eta orduan energia pila bat daukazu, baina gelditzen zara zure bizitzarik gabe.

Hizkuntza-jabekuntzaren ingurukolanen bat egin zenuen, ezta?

Karrera bitartean zenbait irakaslekin lanak eskatu zizkiguten. Lehenengo lana egin nuena zera izan zen: nik ikastolako umeen datu guztiak nituen, zeintzuk zituzten bi gurasoak euskaldunak, zeintzuk bat bakarrik, zeintzuk bat ere ez, eta horren arabera nola gertatzen zen euskararen ikasketaren prozesua. Badakit oso elementala zela egin nuen lana. Zera esan zidaten:

hemen ukitu batzuk egin beharko zenuke. Berez ez zen argitaratu, baina niri bururatu zitzaidan txosten formalago bat idaztea eta Galwayko Hizkuntza Gutxituen 1987ko kongresuan aurkezte. Artikulu hori ez zidaten argitaratu, frantsesez zegoelako. Hortxe gelditu da.

Ezin duzu berreskuratu?

Orain datu horiek oso zaharkituta dau-

Amak etxeiko ikastolan, egunero hartzen zituen 20 ume goizean, 20 arratsaldean, eta horiek nahiko berotzen zuten etxe guztia”



de. Baina garai horretan, 1970ean, ea zeini bururatsen zitzaion horrelako gauza bat. Nik ikusten nuen gure ikastolan haurrek ikasten zutela euskara nahi-ko ondo eta azkar, hainbat adineko 40 ume genituelako gela bakoitzean amak eta biok. Nahastuta edukitzen genituen mahai berean 3 eta 4 urtekoak, 5 eta 6 urtekoak, etab. 4 urtekoek aurreko urtean euskara ikasten zuten, eta lagun-garri ziren ikasturte berrian sartzen zirenentzat, batez ere erdaldun hutsak zirenentzat. Urtero seiren bat izango ziren horrelakoak, eta horiek hasten ziren dena erdaraz egiten, eta kurtsoa bukatzean deklinabideko atzizkiak eta jartzen zituzten, eta udaran galtzen zutena kurtso berrian berreskuratzen zuten. Uste dut txikitan ikasten duzuna, hori berreskuratu dezakezula. Hori niri gertatu zitzaidan ingelesarekin, Ternuan.

Kontatu.

1991n izan zen, Ternuako Saint-John's-eko unibertsitateko liburutegian, antzinako mapak ikertzen ari nintzen euskal toponimoen bila. 1985eko Labradorreko Lehen Euskal Espedizioan ezagutu nuen irakasle arkeologo bat agurtu nuen, eta zera eskatu zidan: unibertsitateko beste irakasle batzuek zertan ari nintzen jakin

nahi zuten, eta ea esplikatuko nien. Eta hor atera nuen ingelesa, oinazpitik. Ordu eta erdi aritu nintzen beraiekin, eta galderak egin zizkidaten. Zera esan nien: "Hau ez da nire lehenbiziko hizkuntza, beraz, aguantatu beharko duzue nire ingelesa". Gero gauza arraro batzuk galdetu zizkidaten euskarari buruz, ea loturarik zuen etruskoarekin, eta horrelakoak, baina pentsatu nuen: "Nahiko ondo pasatu dut proba hau, jasan dute eta galderak egin dizkidate gainera".

Kontatuko didazu nola sartu zinen etnografiaren eta toponimiaren kontuan?

Lizentziatura titulua lortzeko Deustun estatuko azterketa, errebalida, egin behar genuen tribunalaren aurrean, tesina eta guzti. Niri tokatu zitzaidan estatuko proba egitea: teorikoa, praktikoa eta tesina. Senarrak [Fermin Leizaola] esan zidan Deierri haraneko toponimia azter neza-keela lan horretarako. Esan nion: "Aizu, haran handiagorik ez duzu topatu Nafarroa guztian?". Berari gustatzen zitzaion toponimia eta lagundu zidan biltzen; Aitzpea [alaba] nire gurasoekin utzita joaten ginen. Asteburuetan joan behar izaten genuen, udalaren dokumentuak ikusi nahi bagenituen. Nola-hala bildu, eta egin nuen

hura. Eta, hura bukatuta, senarrak esan zidan, "aizu, eta orain ze karrera egingo duzu hau bukatzean?". Noski, berak mendira joan nahi zuen igandetan, bere artzainen mundura. Esan nion: "Nik, orain, ezer ez". Kongresuetara-eta bidaltzen nituen txostenak, baina motzak, gauza txikiak argitaratzen nituen, ze bi ume nituen, ikastolan ari nintzen lanean... ezin nuen gauza handirik egin.

Dena den, 1985ean, Ternuara joan zinen estreinako aldiz, eta ikerketaldio handi bat zabaldu zitzaizun han. Nolatan antolatu zen bidaia hura?

Ikerlari ingeles batek antolatu zuen, ingelesek egiten duten modura, dirua lortu merkataritza-ganbaretatik, Bilbon zein Donostian, eta bere espedizioa antolatu. Eta ulertu dezazun zergatik zen bere espedizioa: aurkitu berria zuten San Joan baleontzia. Emakume honek Oñatin topatu zuen dokumentu bat, non esaten zen 1565ean hondoratu zela itsasontzi bat halako lekutan, eta esan zuen: "Hor bilatu behar da ontzi hori". Urpeko arkeologoak berak proposatu zuen lekuan topatu zuten.

Ikerlari ingeles eta arkeologo kanadarren artean etengabeko gatazka sortu zen, bakoitzak aurkikuntzaren aldarrikapena egiten zuen eta. Kanadako historia XVI. mendera atzeratzen zuen euskal baleontziak. Lehendik XI. mendeko bikingoen arrastoak aurkituak zituzten, baina hor, ez zegoen ezer idatzirik eta ezer gutxi aurkitu zuten Ternuaren iparraldean.

Zuek nolatan joan zineten?

Ikerlaria tematuta zegoen Fermin nire senarra joan zedin, eta Ferminen esan zuen bera bazihoala ni joanez gero. Taldea oso heterogeneoa zen. Zuk, pixka bat ezagutzen baduzu herri hau, ezin dituzu sartu espedizio berean bi aragoiar, Nafarroako hegoaldeko bat, beste nafar bat, bi bilbotar eta hiru gipuzkoar, elkar ezagutzen ez genuenak; desastre bat izan zen. Hizkuntzarekin, bestalde, arazo bat zegoen. Espedizioan bost gizon eta bost emakume ginen: hiru neskek ingelesa genekien eta horietatik bik soilik euskara, gizonezkoek berriz, ez bata ez bestea.

Nola amaitu zen kontua?

Azkenean, senarra eta biok erreskatatzerat etorri zen Robert Grénier arkeologoa, kontratu txiki bat egin zion senarrari, hiru egunetakoa, Ottawara joateko, eta han ikusi genituen zenbait objektu. Ni itzulpen lanetan berriz ere, zeren bere taldea

anglofonoa zen, eta aurkitutako gauzak zertarako ziren eta beste azaltzen ibili ginen. Eta tira, halako batean pentsatu nuen: “Zer, Kanadara etorri gara, eta ez diegu ezer eramango alabei?”. Horrela, ordubeteko erosketa batean, txamarra batzuk erosi genizkien, oso goxoak. Zorionez, gustatu zitzaizkien. Eta hori horrela bukatu zen.

Baina zuk Ternuako eta Labradorreko kostako leku-izenetan sakontzen jarraitu duzu.

Espedizioko urte berean, Manterola liburu-dendara joan ginen urtearen azken egunean, jabeak esan zidan bazuela zerbait interesatu zekidakeena. Eta zer zen? [Piarres] Detxeberriren *Itxasoco Nabigacione*coa. “Eman bost, mesedez”, esan nion.

Erosi nuen liburua, eta etxera joan ginen Detxeberriekin. Eta, aizu, “zer jan behar dugu gaur, ama? Zer dago bazkaltzeko?”. “Ez dakit”. Batetik Ternuako mapa bat hartu, bestetik nire Detxeberri,

eta buelta osoa eman nion uharteari. Horren harira egin nuen nire lehenbiziko lana, eta euskaraz argitaratu nuen [XVI. eta XVII. mendeetako Kanadako Ternua eta Labrador-eko euskal leku-izenen zenbait berri], *Anuario de Eusko Folklore*-n. Ez dut inoiz aipatua ikusi. Baina tira, egon nintzen espedizioan, argitaratu nuen artikulua, eta geroztik, jarraitu dut aztertzen.

“

Ottawako museoko zuzendariak kontratatatu ninduen museoko gidari zirenei euskaldunak zer ziren azaltzeko”

Kanadara itzuli zinen luze gabe.

1990ean joan nintzen Kanadara, udara osoa bertan eman nuen. Jaurlaritzak antolatutako *Euskaldunak eta Amerika* programan lortu nuen beka bat eta bi alabekin joan nintzen.

Eta zer moduz ibili zineten?

Zaharrenak [Aitzpea Leizaola, antropologoa] unibertsitateko lehenbiziko urtea egina zuen; bigarrena berriz, Usue, batxilergoko 2. mailan ari zen. Aitzpea eta biok joaten ginen artxibora, bion artean kudeatu genuen oso ondo es-

kuizkribu bat. Makinaz idatzita zegoen, eta 20 ale inprimatu zituen lan mardula egin zuen Prowse geografo kanadarrak. Hainbat artxibo zein unibertsitatetan utzi zituen aleak: Ottawako artxiboetan, Cambridgen, Toronton, Winnipegen... Horren harira, euskal mapen konparaketa egin genuen.

Oroitzapen onak dituzu Kanadara egindako bidaiez?

Lagun oso onak egin ditut Kanadan. Lagundu egin didate, bideratu naute, eta haiekin aritu naiz lanean. Esate baterako, Ottawako museoan, hor leku handi bat zeukaten euskaldunek. Hiru areto zeuden euskaldunen gorabeherekin. Zuzendariari ohar batzuk egin nizkion hango gauza batzuei buruz, eskatu nion Euskal Herriko mapa bat jar zezan... Berak kontratatatu ninduen museoko gidari zirenei euskaldunak zer ziren azaltzeko. Beste behin Quebec hiriko Laval Unibertsitateko doktorego amaierako klase bat ematera gonbidatu ninduten Robert Grénierrekin batera, eta hor ezagutu nuen Monseigneur Bélanger [historialaria; euskaldunek San Laurendiko estuarioan izandako presentzia ikertu zuen]. ●



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, TRAFIKU
ENERGIEN ETA
JARDIGARITZAREN SALA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSPORTE ENERGÍA Y
SOSTENIBILIDAD

www.eve.eus



Iritziak

Genoziden konplizeak



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak irailaren 26an Atlantikoa zeharkatu zuen bere hegazkin ofizialean, baina Europako aire espaziotik hegan egitea saihestuta. Gogoratu behar da Nazioarteko Zigor Auzitegiarekin konpromisoak sinatu zituzten estatutak 2024ko azaroaren 21etik behartuta daudela hura atxilotzera, gizateriaren aurkako krimenak leporatuta. New Yorken hitzaldi bat eman zuen Nazio Batuen Asanblada Orokorrean, aretoa ia hutsik zegoela eta Palestinako Aginte Nazionalaren presentziarik gabe, Donald Trumpek ezarritako betoagatik; gero Etxe Zurira joan zen. Han, su-eten proposamena hitzartu zuen AEBetako presidentearekin, Gazako Zerrendan erresistentzia palestinarraren esku geratzen ziren hogeitahituak askatzeko helburuz. Trumpek bere ohiko erretorikarekin iragarri zuen.

Azken finean, bake kolonialerako proposamena zen, eta hori inposatu zuten genozidek, haien ezinbesteko laguntzaileek eta planeta osoko konplizeek, baita gure etxekoek ere. Agirian, hitz bakar bat ere ez bi urteko sarraski sistematikoaren ondoren 67.000 hilotzak berreskuratzeari buruz, ezta Gazako hondakinen artean dauden dozenaka mila gorpuri buruz ere. Sarraskien amaieraren desiraz, bake planaren lehen fasea onartu zuen erresistentzia palestinarrak, bi aldeetako bahituak entregatzea ahalbidetuko zuen su-etena. Baina bigarren fasea sinatzeke dago: tropa israeldarrak zerrenda osotik erretira-

Mundua indarkeria goraipatzen duen ordena berri baterantz doa, nazioarteko kontrol eta neurri mekanismo oro suntsitu nahi duena

tzeko akordioa, Hamasen armagabetzea eta, genozidioa amaitutakoan, lurralde palestinarraren etorkizuneko gobernantza eta berreraikuntza.

Jarraian, Netanyahu txalotzen eta miresten duen eskuin muturreko galaxia globalak, horietako batzuk Bigarren Mundu Gerran juduen holokaustoa burutu zutenen oinordeko politikoak –Alemania, Hungaria edo Poloniako formazio supremazista eta etnizistak–, oniritzia eman zion genoziden bakeari. Katalunian Sílvia Orriols-en jarraitzaileek egin zuten, eta Israelgo egungo gobernuak balio demokratikoen Ekialde Hurbileko bermatzaile gisa aurkeztu. Gauza bera egin zuen Santiago Abascal Voxetik eta Hego Amerikan presentzia handia duen Patriots aliantzatik. Autoritarioen konstelazioak oso ondo daki Trumpek eta Netanyahu inposatutako argazkian ez ateratzea ez dela kontu politiko bat soilik, ondorio ekonomikoak ere izan ditzake.

Ordena kapitalista trumpista berriaren zigor eta mendekuak jasango dituztenen zerrenda beltza desleialtasunen bidez osatzen da. *Neron global* berriari men egiten ez dionak muga-zergen balantzean ordainduko du, baita atzeko atetik iristen diren mesede, txeki eta esker onetan ere. Ongi daki hori Javier Mileik, duela hilabete Etxe Zuritik dolar tsunami bat jasotzen ari baitzen, eta horrek salbatu zuen lagun oligarkei mesede egiteko ezarritako bere austeritate planen porrot aurreikusgarritik.

Orain zaila da ikustea, baina mundua indarkeria goraipatzen duen ordena berri baterantz doa, nazioarteko kontrol eta neurri mekanismo oro suntsitu nahi duena. Trump, Netanyahu, Abascal eta Orriols munduko ordena berri baten parte dira, kapitalismo globalaren interesen inposaketa neofaxista helburu duena. Klima larrialdiaren, etxebizitza krisiaren, lan esplotazioaren edo Hego Globalaren espoliazioaren aurrean inolako erantzukizunik saihesteko etsi-etsian egindako jauzia da. Planetako baliabideak bereganatzen dituzten inbertsio-funtsen buruzagi nagusiak genoziden lagunak eta kolaboratzaileak dira, orain dela urte 90 Adolf Hitlerren erregimenean farmazeutikaren, automobilgintzaren, ingeniari-tzaren edo altzairuaren industriaren multinazionalak ziren bezala. Gazara erortzen diren bonbak finantzatzen, fabrikatzen eta Tel Avivera garraiatzen dira konplize eta laguntzaile sare zabalarri esker. Ez dugu ahazten. ●

Euskararen hastapenak



BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Urriaren 11z geroztik, Baionako euskal erakustokian ikusgai dugu zenbait astez Bernat Etxepare apez idazlearen *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) lanaren jatorrizko alea, beste gisaz Parisko Liburutegi Nazionalen kontserbatzen dutena. Nahi duenak han ikusteko aukera izanen du datorren urtarrilaren hastapen arte, baita hainbat konferentziaren entzuteko parada ere.

Literatura eta historia zale gisa, gertakari zirraragarria da. Izan ere, Etxepareren liburua, berak zioenez harroki, eta kontrakorik ez denez frogatu, euskaraz inprimatu lehen idazkia dugu, duela 500 urtekoa. Mirakuluaren mailakoa da gaur arte iraun izana. Zirraragarria da ere, liburuaren jatorrizko alea izateaz gain, *unicum* ere izatea; hau da gure garaietara heldu den ale bakar-bakarra, “liburu umezurtza” dugu. Horrela, gure hizkuntzaren eta gure literaturaren lehen lekukoa, gure kate literarioaren lehen kate-begia da Baionara etorriko, sortu zen lurreko Errobi erreka ber-beraren uren hegira: apez apal baten eskuz idatzi altxorra gure plazara itzuli da, erranez: hemen hasi zen dena.

Gogoan dut adituen ahotan behin eta berriz entzundakoa: “Etxepareren lanak ez zuen hedatze handirik izan, eta horregatik galdu ziren gainontzeko aleak”. Preseski, ikusgai izanen den ale horren azalak frogatzen digu hori, azal fina du eta Frantziako Condé-aren armarririk daramatza. Eta gaur arte iraun izana zor dio segur aski orduko Joana Labrit erre-

ginaren koinatari, haren liburutegitik baitzitekeen biltegitratu noizbait. Zenbat ale egin ziren orduan? Berrogeita hamar? Ehun? Hori kopuru handia zitekeen ordukotz, tipiegia *jalgitzeko mundura*... Eta gisa horretan, garai hartako inprentarainoko nekeziez gain, erakusten digu ere hizkuntza, hizkuntza baten aldeko apustua, kontu politikoa zela jada, hierarkian gora eta boteretik hurbil, inprimatze sariak ordaintzeko gai zen norbaiten sos eta babesarekin publikatua izan baitzitekeen. Abaro horretatik eman zituen Etxeparek euskara idatziaren lehen urratsak, *debile principium* bere iritziz, eta etorkizun opa-roagoa, *melior fortuna sequatur*, desiratu.

Urak bost mendez iraganik, nago zer erran zezakeen Etxeparek gaurko egoeraz? Alde batetik, ikus zezakeen bide luzea eginik, euskara *escriba* daitekeelako zalantzarik gabe, irakatsi, sustengatu eta preziatu, eta gainera, zenbait urte geroago, Joanes Leizarragak goraipatzen zuen euskararen batasuna gauzaturik ikusiko zukeen, batuaren bidez.

Alabaina, ikusiko zukeen ere zenbat kostatu izan den horra heltzea. Bere garaiko aldarrikapen politikoak oraindik oihartzun egiten du: hizkuntz politika eskasa, betiere *Condé* boteredunen oniritziaren menpe eta haien nahien arabera eramana, plazarako bide zabalegia ideki gabe eta lehen aukeran berean oztopatua, duintasun eske oraindik ere.

Ikuspegi horretatik, mailegu honek mezu argia bidaltzen digu: gure hizkuntzaren historiaren ardura geurea da, se-



DOM CAMPISTRON

kulan bezala. Hortik, euskal erakustokira joanez gero, ez da soilik objektu bat ikusiko: kontzientzia hartzeko ariketa ere izan beharko du. Etxeparek bezala, guk ere gaur egin behar dugun hausnarketa da: zerk egin dezake euskara eta euskalduna indartsuago?

Balio filologiko, poetiko, soziologiko eta politiko handia du *Linguae Vasconum*-ek, eta 2025eko urriaren 11tik 2026ko urtarrilaren 11ra bitarteko erakusketa eta junta ezberdinetan, testu honen hainbat eduki nabarmenduko direlakoan nago. ●

Estereotipoen eskolara!



**IDOIA RODRIGUEZ
MONDRAGON**
IDAZLEA ETA
PEDAGOGOA

Azkenean iraila bukatu da! Udako lasaitasunak eskolara itzultzeari tokia utzi zion. Beharbada, tripan bola erraldoi bat eta esteetan korapilo meta sentitu dituzu umezaroko traumei pentsatuz. Beharbada, zure haurrak jasaten duen estresarekin bat egiten duzu. Edo, beharbada, ikasle edo irakaslea zara eta gaizki izate hori bizitzen duzu.

Zergatik sentitzen ote dugu hainbestek ikastegira itzultzeko frustrazioa? *Farniente*a eta eguzkia utzi behar ditugulako erritmo zorrotz bat errespetatzeko eta zentzugabekeriak barnatzeko, kapitalismoa elikatzeke?

Dudarik gabe. Denok dakigu eskola politikaren zerbitzurako eraikia dela eta helburua horren balioak ahal bezain goizik barnaraztea dela. Gure sistemak desoreka sozialak inposatzen dituenek, heziketak ezberdintasunak ahalbidertzen ote ditu? Ez litzateke posible izanen! Alta, jadanik 1960ko hamarkadan, Bourdieu eta Passeron soziologoek gure klase sozialak etorkizunarekiko baldintzatzen gintuela erakutsi zuten. Gaur, gainera, frantses lurraldeko edota Europar Batasuneko emaitzak ikusiz, neska eta mutikoak ikastegietan desberdinki tratatuak direla eta sexismoa integratzen ikasten dutela agertzen da.

Has gaitezen orientazioekin: arta eta ikasketa sozialetan %85 neskak dira,

ingeniaritzan, %83 mutilak. Ondotik, zigorrek jasotzen dituztenen %85 mutikoak dira. Segitzeko, irakasleek heren bat aldiz gehiago mutikoekin trukutzen dute neskekin baino. Haur eta gazte literaturako pertsonaia femenino nagusien proportzioa %38koa da. Bukatzeko, Europa mailan LGBTQIA+ ikasleen %54 baino gehiagok jazarpena bizi izan dute.

Zer suposatzen dute zenbaki horiek? Eskola, neutraltasunik ez ukaiteaz gain, injustizien lantegia dela. Desoreka horiek helduaroan baieztatzen dira: lehenik, langile pobreen %70 emazteak dira. Gero, mutikoek hainbeste zigor jasotzen dituzte, ikasgelan –gure jendartearen kopia– haien gizontasun toxikoa eta bortizkeria erabiltzen ikasten dutelako. Alderantziz, neskek pasiboak izaten barnatzen dute. Lan hori oharkabe egiten da. Alta, konponbideak badira: kultura ereduak eta irakaslearen jarrera oinarritzkoak dira norberaren pertzepzioarentzat eta besteen errespetuarentzat, baina hori, nola ikasten dugu? Zein tresna ditugu hezitzaile eta kultura eragile onak izateko?

Ikusten duzu, azkenean, ez da harritu behar agorrila bukaera, kaierak, zorroak edo agendak saltegieta ikusten dituzularik hotzikarak baldin badituzu. Eskola zure nortasuna eta izaera zapaltzeko eraikia den fabrika sexista delako. ●

Behin-behineko egoera



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Autoan musika entzuteko dudak aplikazioari aholkua emateko eskatzen diot beti. Garai batean Leon Benavente-rekin joaten nintzen bileretara eta klaseetara. Beharbada sumatzen zuen ohi baino tristeago nengoela garai hartan, eta zer dago aringarriagorik zu baino okerrago dagoen jendea badagoela jakitea baino, eta zu ere okerrago egon zintezkeela pentsatzea. Orain oporretara joatea besterik ez dut buruan, esaten zuen kankak, lehen barre eginarazten zidanak, orain triste jartzen nau, lehen zoriontsu egiten ninduenak, ez da existi-

tzen. Izartxo bat jarri nion kantari mai-teen zerrendara gehitzeko. Ez hitzengatik bakarrik, izenburuarengatik ere bai: *Behin-behineko egoera*. Eta akordatu naiz Baionan izan genuen bilera hartaz, nola hiru idazle geunden, nork bere hutsunearekin barrenean, malkoei ezin eutsiz. Burutara etorri zait Asier Serranok esan zidana autobusean: gezurra badirudi ere, hobeki egongo zarete egunen batean. Nago hirurak hobeki gaudela garai batean baino, baina ber gisan maite ditugula kanta tristeak, Serranorenak zein Benaventerenak. ●

Behea jo du Goiak



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Etsi ote du Donostiako goi agintariak lortu ezinik nahi beste arroztea hiria? Pot egin ote du gazte donostiar *eskisitoak* beren auzoetatik ezin deserroturik? Nekatu ote da hiriko jauntxo kapitalista handien irrika neurrigabeak ezin aserik? Ez dirudi. Esango nuke ezusteko aldaketa hau ez dela hain batekoa izan, gehiago izan dela beste urrats bat, hauteskundeei begira, bere delfin Jon Insausti ezagunago bilakatze-ko (gogoratu Insausti sartu ere Miren Azkarate ordezkatura sartu zela udal gobernuan, agintaldi erdian, eta hura ere sonatua izan zela).

Askok pentsatu dute izan zitekeela bere alderdian ohartu direlako hiria eta inguruok nazkatuta gaituela bere nagusikeriarekin eta jarrera absolutistekin, dagoeneko mesede baino kalte egiten ari zitzaiolako botereari eusteko helburuari. Ez bada, Goiak nagusikeria nahita erabili du eskuindar espainolisten botoei begira. Horrela uler daitezke sekurokrazia, klasismoa, adiskidekeria, espekulazioa eta arroztea bultzatzeko esan dituenak, eta, batez ere, egin dituenak.

Oroitarazi nahi dut Insaustik berak jarri diela aurpegia hainbeste kritikatu ditudan euskararen eta euskal kulturaren inguruko Eneko Goiaren politikari

Insausti, ordea, euskaltzaletzat aurkeztu dute berehala, erantzun irmoa eman omen zuelako epaitegiek Udal-tzaingoa euskalduntzeko urratsen aurka emandako epaiaren aurrean. Ez nuke ondoren aipatuko ditudanekin ulertzetik nahi lanean hasi baino lehen epaitzeko asmoa dudarik; izango du bere ibilbidea eta erabaki propioak ezartzeko modua.

Oroitarazi nahi dut Insaustik berak jarri diela aurpegia hainbeste kritikatu izan ditudan euskararen eta euskal kulturaren inguruko Eneko Goiaren politikari. Esaterako: 2022. urtean, Insaustiren ardura-pean, antzerki ikuskizunen urteroko programa entzutetsuko eskaintzaren %7,7 besterik ez zen izan euskaraz. Geroztik ere berdintsu, aurten *dFeria* antzerki azokan euskarazkoak %10 izan baitira, Mikel Ayllon antzerkigileak otsailean Mastodonnen jakinarazi zuenez. Pandemian, euskararen hedapenarekin lotutako hainbat ekimeni murrizketak ezarri zizkien, uhartean eskultura hanpatu bat paratzen zuen bitartean, eta euskarazko hedabideetan baino hogeai aldiz publizitate instituzional gehiago kontratatu zuten *El Diario Vasco*-n. Añorga Txikiko hirigintza egitasmoan ere, euskararen arnaguneak babestea helburu duen araua proaktiboki baino mugatzaileki erabili zuen, funtsik gabe utzita.

Beraz, "*Le Roi est mort, vive le Roi*" (hil da erregea, bira erregea!), baina, erne, delfin, azken errege absolutistak ere behea jo baitzuen Frantzia, eta nola! ●

**MARMOLES
SOULE**
www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



Museoa

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

Iragarpen beltzak hizkuntza-politika ausarta eskatzen du

Hego Euskal Herrian hamarkada baten buruan euskararen egoera zein izan daitekeen ikertu du UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Eskuratutako emaitzak ez dira hizkuntzaren bizi-indarraren aldekoak eta arreta jartzeko modukoak dira belaunaldi gazteen ezagutza-mailan izango den beherakada eta arnaguneen ahultze nabarmena. Aurreikuspenak beteko balira, datorren hamarkadan gero eta gehiago izango dira nagusiki erdaraz inguratuta biziko diren euskal hiztunak, eta azken urteetako indartze eta egonkortze aldien ostean, euskararen galera fase argia letorke. Hizkuntza-politikak aldatzeko beharra mahai gainean dago.

 JONE GARTZIA GERRA

Uztailan argitaratu zuen UEMAk Hego Euskal Herriko etorkizun demolinguistikoa inguruko azterketa. Mankomunitateak Siadeko ikerketa etxeari eskatua zion datu demografikoak oinarri hartuta 2036rako EAEn eta Nafarroan euskarak izan dezakeen egoeraren irudikapena egiteko, eta argitara emandako datuek alarma pizteko adinako larritasuna dute.

Udan eman zuten ikerketaren emaitzen berri, hedabideen lerroburuak hartu zituen gaiak eta UEMA hainbat eragilerek in bildu zen ondorioak aurkezteko. Ez da gutxiagorako, proiektzioak irudikatutako argazkia ilun samarra baita: aurreikus-

pen demografikoak betetzen badira eta hizkuntzen bizitasunean eragina duten beste faktoreek orain arteko joera bera mantentzen badute, hamarkada baten buruan Hego Euskal Herrian ez da ia euskararen arnagunerik izango, euskaldun gehienak ingurune erdaldunetan biziko dira, eta aurreko faseetan funtsezkoa izan den belaunaldi gazteen ezagutzaren eta erabileraren aurrerapenak atzera egingo du nabarmen.

Lerroburu ezkor eta pesimistak alde batera utzita, merezi du ikerketaren xehetasunetan murgiltzeko tarte hartu eta UEMAk aurkeztutako ikerketaren ondorio eta gogoetetan fokua jartzea,

egoerari aterabidea jarri nahi bazaio. Hurrengo lerrootan txostenaren xehetasunak azaldu eta UEMAk ikerlari eta soziolinguista Iñaki Lurrebasoren hitzak jaso dira, emaitzen ondorioak eta gogoe-tak azaltzeko.

MARRAZTUTAKOA BAINO OKERRAGOA IZAN DAITEKE EGOERA

Ezer baino lehen, UEMAk kideek behin baino gehiagotan aipatu duten bezala, azpimarratu beharra dago *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036. Proiektzio demolinguistikoa* ikerketa ez dela etorkizunean gertatuko denaren gaineko



ARTZ LOIOLA / FOKU

Argazkian, duela bi urte, 2023ko azaroaren 4an, Euska LGintzaren Kontseiluak antolatutako manifestazioa Bilbon. 70.000 euskaltzale elkartu ziren euskararen aurkako oldarraldia arbuiaitzeko.

aurreikuspen bat, hipotesi batzuk betez gero eta datu demografikoak aztertuta 2036an Hego Euskal Herrian izango den egoera demolinguistikoa irudikatzeko ariketa baizik.

Ikerketaren beraren mugak aipatzea ere komeni da. Batetik, ez du aztertzen Ipar Euskal Herriaren egoera zein den eta zein izango den, bertako biztanleriaren zentsu bidezko datuetan ez baita hizkuntzari buruzko informaziorik jasotzen. Bestetik, ikerketak alderdi demografikoei baino ez die erreparatu proiektzioa egiteko, baina izan badira beste hainbat faktore hizkuntza minorizatuaren bizitasunean, transmisioan, ezagutzen eta erabileran eragiten dutenak, hala nola teknologiari eta kultur kontsumoari dagozkionak, hizkuntza-politikekin lotutakoak, mugimendu euskaltzalearen eragina edo hiztunen jarrera eta hizkuntza ohiturak.

Horiek ez dira kontuan hartu edo, hobe esanda, 2021-2036 aldian berdin jarraituko dutela aintzat hartu da ikerketa garatu ahal izateko. Nolanahi ere, ohar-tarazpena egin du UEMAko ikerlari eta soziolinguista Iñaki Iurrebasok: "Alderdi horiek ez dira horren kuantifikagarriak zehaztu ahal izateko zer gertatuko den, baina munduak daraman norabidea ez da hizkuntza gutxituen aldekoa". Horrexegatik aipatzen du egoera marraztu dena baino arriskutsuagoa izan daitekeela hamar urteren buruan.

KOKATZEKO DATU BATZUK

2036an euskarak Hego Euskal Herrian izango duen egoeraren irudia ateratzeko, azken hiru hamarkadetako aldaketa demografikoak aztertu eta datorren hamarkadako joeren irudikapena egin du Siadecok, eta merezi du datu horiei erreparatzea ondorioen sakontasunean murgildu aurretik.

Datuek garbi adierazten dute Hego Euskal Herriko biztanleriak gora egiten jarraituko duela, hazkunde motelduko bada ere. Gorakada hori bereziki migrazio mugimenduen ondoriozkoa izango da, eta bereziki 25-44 urtekoen taldean izango du eragina, hau da, guraso izateko adinean dagoen biztanle taldean. Biztanleriaren zahartze-prozesua ere agerikoa da, helduen adin-tarteetan izan baita eta izango baita hazkunderik handiena, bereziki 65 urtetik gorakoen artean.

Azterlanak 2036. urtean Hego Euskal Herriko udalerriak nagusitasun-eremuen arabera nola banatuko diren ere irudikatu du. Bost nagusitasun-eremu banatu dituzte etxeko erabilera indizearen arabe-

ra, txikienetik handienara: lehenengoan etxeko erabilera %20tik beherakoa da, bigarrenean %20 eta %39,9 bitartekoa, hirugarrenean %40 eta %59,9 artekoa, laugarrenean %60 eta %79,9 bitartekoa eta bosgarrenean, azkenekoan, etxeko erabilera %80tik gorakoa da.

"Ez da erreala demografiaren eragina ukatzea, migrazio mugimenduek eta jaiotzek eta heriotzek beti dute eragina egoera soziolinguistikoan. Adi egon behar dugu.

Arrazakeriaren bidea baztertu behar da, etorkinei errua botatzea eta haien aurkako jarrerak hartzea gizabidezkoa ez izateaz gain, euskararentzat ere ez litzateke ona izango"

Iñaki Iurrebaso,
UEMAko ikerlari eta soziolinguista

Atzera begirako azterketaren ondorio nagusia da muturreko guneetan, hots, erabilera handieneko eta txikieneko udalerrietan, bizi den biztanleria nabarmenki murriztu dela. Etxeko erabilera handieneko nagusitasun-eremua desagertu da, ez biztanleria galeraren ondorioz, baizik eta etxean euskara erabiltzeko ohiturarik ez duten biztanle berriak jaso dituztelako udalerri horietan. Erabilera urrieneko nagusitasun-eremua ere mehetuz joan da, hurrengo koskaren mesedetan.

Fokua hurrengo hamarkadan jarrita, bosgarren nagusitasun-eremuaz gain, laugarrena ere desagertzetik hurbil ge-

ratzea espero da. Kontuan hartzekoa da 1991tik 2021era laugarren nagusitasun-eremuko udalerri kopurua igo egin zela, bosgarren eremutik jaitzita udalerrien eraginez. Aldiz, 2036rako aurreikuspena da horietako gehienak hirugarren nagusitasun-eremura jaitea, eta biztanle gehienak bigarren eta hirugarren multzoetan pilatzea.

Lurraldeen arabera banaketari erreparatuz gero, hamar urte barru Bizkaian ez da egongo laugarren nagusitasun-eremuko herririk, eta soilik Nafarroako bederatzi herri (3.692 biztanle) eta Gipuzkoako hamabi (3.575 biztanle) geratuko dira multzo horretan. Gipuzkoan lehenengo nagusitasun-eremua desagertu egingo da eta Araban lehenengo eta hirugarren nagusitasun-eremuak egongo dira soilik.

EZAGUTZA, ETXKO HIZKUNTZA ETA TRANSMISIOA


Ia 300 orrialdeko lan mardula da *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036 proiektzio demolinguistikoa*. Emaizak eta ondorioak argiro aurkezteko, laburpena ere argitaratu dute UEMAren web atarian, interesa duen ororen eskura. Bertan, euskararen etorkizuneko bizi-indarraren proiektzioa aurreikusteko, bost elementu soziolinguistiko azpimarratu dituzte: aipatutako nagusitasun-eremuen egoeraz gain, hizkuntzaren ezagutza, haurren lehen hizkuntza, etxeko erabilera eta gaitasun erlatiboa. Azter ditzagun azkeneko laurak banan-banan.

Ezagutzari dagokionez, ikerketak aipatzen du Hego Euskal Herriko biztanle euskaldunen pisuak gora egiten jarraituko duela, baina mantsoago. Oro har, biztanleria euskalduna zahartuko da eta jaitxi egingo da haur eta gazteen pisua biztanleria euskaldunean. Biztanleria piramidearen oinarria gero eta meheagoa izango da, baina aipatzekoa da 24 urtetik gorako adin-tarteek biztanleria euskaldunarekiko duten pisuak gora egingo duela.

Hizkuntza-ezagutzaren bilakaeran berebiziko eragina du nagusitasun-eremuen banaketak eta, lehen azaldu antzera, Hego Euskal Herriko euskaldunak eremurik erdaldunenetan biltzen ari dira, gero eta neurri handiagoan gainera. Etxeko erabilera urrieneko eremua izango da hazkunderik handiena izango duena eta 2036rako, biztanle euskaldunen ia %80 biziko da etxeko erabilera-indizea %40tik beherakoa den udalerrietan.

Euskararen ezagutza


Hizkuntza-ezagutzaren bilakaera (1991-2021) eta aurreikuspena (2026-2036).



Iturria: Eustat, 1991-2021; Nastat, 1991-2021; INE, 2026-2036; Siadeco, 2026-2036 proiektzioa.

Lehen hizkuntza


Lehen hizkuntza euskara dutenen pisua (1991-2021eko datuak eta 2026-2036ko aurreikuspenak), adin-tartearen arabera.



Iturria: Eustat, 1991-2021; Nastat, 1991-2021; INE, 2026-2036; Siadeco, 2026-2036 proiektzioa.

Etxeko erabilera

Etxeko erabilera (1991-2021) eta etxeko erabileraren aurreikuspena (2026-2036)



Iturria: Eustat, 1991-2021; Nastat, 1991-2021; INE, 2026-2036; Siadeco, 2026-2036 proiektzioa.

Herritarren lehen hizkuntzan arreta jarrita, goranzko joerari eutsiko dio euskara eta gaztelania biak lehen hizkuntza gisa jasoko duten haurren pisuak, eta are hazkunde azkarragoa izango du euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk jaso dituztenen pisuak, batez ere 25 eta 64 urtekoen artean. Azpimarratzekoa da soilik euskara jasotzen dutenen pisuak puntu bat egingo duela behera, bereziki 2 eta 24 urtekoen artean.

Lehen hizkuntza euskara dutenen pisuak soilik udalerrri erdaldunetan hartuko du goranzko joera, gainerako nagusitasun-eremuetan behera egingo du, gaztelaniaren mesedetan. Antzera gertatuko da etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen pisuarekin: gora egingo du udalerrri erdaldunetan 2026rako, baina ondoren beherantzko joera hartuko du, gainerako nagusitasun-eremuen antzera.

Aldiz, etxean euskara eta gaztelania edo horiek ez diren beste hizkuntza batzuk erabiltzeko ohiturek nagusitasun-eremu guztietan egingo dute gora, eta nagusiki gaztelania erabiltzen dutenen kopuruak gora egingo du udalerrri euskaldunetan. Joera hori gehienbat erdiko adin-tarteetan areagotuko da, itxura guztien arabera espero diren migrazio-mugimenduekin lotuta.

Proiektzioak aurreikusten du atzerrian jaiotako Hego Euskal Herriko biztanleen artean “bilakaera oso positiboa” izango dela euskararen transmisioaren alde.

Nolanahi ere, ikerketak ohartarazten du joera horrek kopuru absolutuetan izango duen inpaktua oso mugatua izango dela eta gaztelania transmititzen duten atzerritar jatorriko herritarren inpaktu kuantitatiboa oso handia izango dela.

Oro har, euskararen familia bidezko transmisioak atzera egingo du, baita bertan jaioak diren gurasoen familien artean ere, etxean nagusiki euskara erabiltzeko ohiturak behera egingo duelako. Transmisio-mailan dagoen hutsuneak zuzenean eragiten du erabileran eta ezagutza mailan, baina badira etxekoaz gain transmisioan eragiten duten beste faktore batzuk, hala nola hezkuntza arautua, kaleko eta auzoko bizitza, komunikabideak, kultur eskaintza eta kontsumoa.

Iñaki Lurrebasoren esanetan, euskararen transmisioan dagoen aurkako faktore garrantzitsuenetakoa kalea da: haur gehienak erdara nagusi den inguruetan bizi dira, hamarretik ia bederatzira. Aurreikuspenen arabera etxean euskara jasoko duten umeak oraindik gutxiago izango di-


renez, soziolinguistak uste du gainerako eragileak ahal bezainbeste indartu behar-ko lirakeela, balantza orekatzeko.

GAITASUN ERLATIBOA

Ondorioen atalera jauzi egin aurretik, ikerketak euskal hiztunen gaitasun erlatiboaren bilakaera aztertzea, hots, biztanleria zein hizkuntzatan moldatzen den hobekien. Arlo horren aurreikuspenik egiteko nahikoa daturik ez, eta iraganeko bilakaerari soilik erreparatu diote. Inkesta Soziolinguistikokoaren 1991ko eta 2021eko datuak erkatu dituzte eta agerian geratu dena da euskal elebidunen pisuak behera egin duela elebidun orekatuen eta erdal elebidunen mesedetan. Euskal elebidunak dira euskaraz errazago egiten dutenak, elebidun orekatuak euskaraz zein erdaraz antzera moldatzen direnak eta erdal elebidunak erdaraz euskaraz baino errazago egiten dutenak.

Datuok erakusten dute euskal hiztunen ezaugarriak aldatzen ari direla, euskararen bizi-indarraren kaltetan, batez ere Bizkaian eta Nafarroan. Izan ere, bi datu esanguratsuk argi azaltzen dute egoera zein den: bi herrialde horietan elebidun orekatuen artean beti euskaraz

Nagusitasun eremuak



Iturria: Siadeco.

aritzeko ohiturak nabarmen egin du behera, baita euskal elebidunen artean ere.

Gipuzkoan txikiagoa izan da higadura, euskal elebidunen pisua mantentzeaz gain, gora egin baitu etxean beti euskaraz aritzen diren euskal elebidunen pisuak. Arabari dagokionez, euskara indartzen ari bada ere, oso urrun dago beste hiru lurraldeetako inguru euskaldunen ezaugarriak lortzetik.

GALERA FASE BATEN ATARIAN

Siadecoren ikerlanean hiru ondorio nabarmendu daitezke. Batetik, gune trinkoak edo eremu euskaldunen ahulduko dira, ia arnasguneak desagertzeraino. Bestetik, azken hamarkadetako lorpen handienetako bat kolokan geratuko da, alegia, belaunaldi berrietan emandako aurrerapausoak, haurren eta gazteen artean atzerapauso argiak nabari baitira.

Hirugarrenik, lurresasok ohartarazi du aurreikuspenak betez gero galera fase argi baten atarian egongo garela, gogoratzeaz batera 2036tik aurrera ikerketaren oinarrian dauden mugimendu demografikoek ere aurrera jarraituko dutela, ez hain zuzen euskararen bizi-indarraren mesedetan. "Azken 60-70 urteetan oso egoera arraroa bizi izan dugu hizkuntza gutxituetan, indarberritze prozesu bat izan genuen. Azken 20

urteetan geldi antzean izan gara eta emaitza hauek erakusten dute beherakada argia hasiko genukeela", laburbildu du.

Horregatik, alarmak pizteko, esnatzeko eta egoera serio hartzeko unea dela uste du Lurrebasok: "Hau ez da gertatuko denaren aurreikuspen bat, izan behar du euskarari orain ematen ez zaion lehentasuna emateko bide bat". Horregatik uste du bai maila pertsonalean, sozialean zein politikoan auziari orain artekoa baino garrantzi handiagoa eman behar zaiola, etorri daitekeen galera joerari kontrapisua jartzeko.

EZ IKUSIARENA EGITEA EZ DA AUKERA BAT

Zer egin jakitea bezain garrantzitsua da zer ez egin jakitea, eta alde horretatik argi mintzatu da Lurrebaso: "Arrazakeriaren bidea baztertu behar da, etorkinei errua botatzea eta haien aurkako jarrerak hartzea gizabidezkoa ez izateaz gain, euskararentzat ere ez litzateke ona izango. Komunitate bezala hortik abiatuko bagina, euskara ezingo litzateke bide horretatik indartuta aterata".

Bestetik, "ostrukarena egitea" edo "atzerapenaren onarpena" ere baztertzeko bideak direla aipatu du. "Ez da erreala demografiaren eragina ukatzea, migrazio mugimenduek eta jaiotzek eta heriotzek beti dute eragina

egoera soziolinguistikoan. Adi egon behar dugu, daukagun minorizazio egoerarekin ez badugu kontuan hartzen zer etorri daitekeen eta horri kontrapisua jartzeko adina indar egiten ez badugu euskararen egoera indartzeko, konturatzerako askoz egoera okerragoan egon gaitezke". Beste aukerarik egongo ez balitz bezala jokatzeko ere euskararen kalterako litzatekeela ohartarazi du soziolinguistak.

Horrexegatik aipatzen du, hain zuzen ere, maila guztietan indarra egin behar dela hizkuntzaren bizi-indarrari eutsi nahi bazaio. Irudikatutako eszenatokia ez da ona, eta ez dirudi neurririk hartu ezean epe laburrean norabide aldaketarik antzeman litekeenik transmisioan eta erabileran. Horregatik txostenak argitara emandako alderdi positiboetan arreta jarri eta horietan sakontzea proposatzen du. Aldeko joeren artean daude helduen ezagutza-mailaren gorakada, atzerrian jaiotakoen artean transmisioaren eta erabileraren bilakaera positiboa, gaztelania-rekin batera bada ere hainbat etxetan euskarak sarbidea lortu izana, lurralde eta eremu batzuetan erdietsitako aurrerabideak eta beste batzuetan hizkuntzaren bizitasunari eutsi izana. Horiei erreparatzea ezinbestekoa izango da ahulguneak indartu eta parez pare jarritako erronkari aurre egiteko. ●

Bestelako hizkuntza-politikarik egin ezean...

Idurre Eskisabel,
Euskalgintzaren Kontseiluaren idazkari nagusia

Historian lehen aldiz nagusitasun eremurik gabe geratuko da euskara". Eduki sakon eta konplexuak lerroburu batera makurtzeak beti dauka murriztaile gertatzeko arriskua, baina, nago, esaldi horrek zuzen jasotzen duela UEMaren enkarguz Siadecok egindako *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036 proiektzio demolinguitikoa* ikerlanaren muina. Horixe baita iragarpena: orain artekoek bestelako hizkuntza-politikarik egin ezean 11 urte barru ez dela ia arnagunerik geratuko.

Beltza da iragarpena. Baina ez, horregatik, berria. Izan ere, euskalgintzak urteak daramatza ohartarazten euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuan asko direla sumatzen diren herrenak, eta azken hamarkadetak susperraldian irabazitakoak galtzen hasteko arriskua handia dela. Finean, bestelako diagnostiko batzuetan jasotakoa berretsi eta indartzera dator Siadecoren ikerketa, larrialdia nabarmentzera, kasu honetan, fokua arnaguneetan jarrita.

Eta, jakina, larria da arnaguneen galerak adierazten duena. Nagusitasun eremuak desagertzeak esan nahi baitu euskaraz aritzea arnasa hartzea bezain erraza den bizi inguruak galduko direla. Esan nahi du ez dela izango euskaldunak berez sortzen diren gune geografikorik, euskara euskaratik elikatzen den eremurik. Normala euskara izango den lurralderik. Eta horrek guztiak esan nahi du desagertuko direla normaltasunaren entsegu diren hizkuntza-politika aurreratuak indarrean jartzeko gune behinenak, galduko dela euskararen nagusitasuna uhin efektu kutsakorrez hedatzeko aukera. Finean, galduko dela euskararen normalizazio eta biziberritzean aurrera egiteko trankzio indar ezinbesteko bat. Aitzindaritza.



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Aldi berean, Siadecoren ikerketak erakusten du zein den euskararen zaurgarritasun maila, minorizazio egoeraren heina. Azken batean, erakusten duena baita tresna gabezia bat normalizazio prozesuan sumatu diren hutsuneak zuzentzeko eta azken urteetako gizarte aldaketek sortutako erronkei erantzuteko. Adibidez, bizitzaren digitalizazioak ekarritako hizkuntza praktika eta geografia berriei neurria hartzeko (pantailak dira haur eta gaztetxoak erdalduntzeko makinaria nagusia eremu horietan). Edota, kapitalaren egungo logiken gorpulean heldutako euskal herritar berriei euskara emateko (ez dezagun ahantzi gaztelar eta frantsesak biztanle berri guztiak hizkuntza horietara eramateko duten tresneria erraldoia, behartze mekanismoetatik hasita). Laburbilduz, egiturazkoa dela arazoa.

Baina abiaburuan proposatu dudan lerroburuak badu ñabardura garrantzitsu bat: izan ere, nagusitasun eremurik gabe geratzeko zorian da euskara orain artekoek bestelako hizkuntza-politikarik egin ezean... Beste era batera esanda, ñabardura titulu bihurtzeko unea da. Arnaguneei arnasa emango dieten hizkuntza-politika aurreratu eta sendoak abiatzekoa, egiazko zeharlerrotasuna ardatz izango duen paradigma berri batekin. Arnaguneek iraungo badute eragin behar baita ekonomian, lurralde antolaketan, genero politikean, hirigintzan, kulturean, hizkuntza-kontzientziazioan... Eta, batik bat, eragin behar da begi bistatik galdu gabe nagusitasun eremu horien testuinguru orokorra: hau da, argi izanik ez direla uharteak, baizik eta egunerokoan eremu horietako biztanleek askoz ere gune erdaldunagoekin harreman handia dutela, eta arestian aipaturiko digitalizazio globalak gure hizkuntza-praktika eta geografiak errotik aldatu dituela. Halaber, ezin dugu begi bistatik galdu arazo horien guztien muina, egiturazko tresna gabezia, euskararen lurralde guztian eta euskal herritar guztiengan gertatzen dela, bereizketa soziolinguitikorik gabe.

Euskaraz duen esanahiaren kontra kasu honetan hamaika ez da asko; aitzitik, 11 urte oso-oso gutxi da. Oso epe laburra da Siadecoren proiektioak markatzen diguna. Beraz, has gaitzen bihurtik zeharlerrotasuna gidari izango duen paradigmatari heldu eta orain artekoek bestelako hizkuntza-politika aurreratuak egiten.

(*Badaezpadako oharra: ez gaitzen galera arrisku honen oinarrian migratuak jartzeko tentazio errazean amil: etorkizuneko erronken parte dira, baina inola ere ez gure egiturazko arazoaren eragile).

Ikusi, ikasi eta aurrera egin

Imanol Larrea Mendizabal,
Soziolinguistika Klusterraren zuzendaria

Ariketa oso interesgarria eta beharrezkoa egin du 2036rako prospekzio demografikoaren azterketak: orain arteko joera demografikoek eta hizkuntzaren ingurukoek jarraitzen badute 2036an nola egongo garen kalkulatu du. Horrenbestez, aitzakia ematen digu guztioi euskararen biziberritze prozesuari buruz eztabaida egiteko, tresna zientifikoen bidez lortutako datuak oinarri hartuta.

Garrantzitsua da horrelako proiektu baten irakurketa osotasunean egitea, ez osagai isolatuetan geratzea, eta soziolinguistikaz orain arte dugun informazioarekin osatzea. Ezer baino lehen, kontuan hartu behar da proiektioa dela, ez iragarpena. Ez digute esaten horiek guztiak gertatuko direnik, baizik eta orain arte bezala jarraituz gero zein izango den egoera laster, hamar urte ezer gutxi baita soziolinguistikoki. Hala, orain arteko bideari jarraiki nora iritsiko garen erakusten digu nahikoa argi eta horrek balio handia du.

Azpitarratzekoak dira hainbat puntu. Batetik, aldaketa demografiko nabarmenean murgilduta gaude eta horrek bi osagai garrantzitsu ditu: immigrazioa eta jaiotze tasa jaistea. Horiez gain, badira aldaketa sozioekonomikoak eta lurralde barruko populazio mugimendu garrantzitsuak ere. Horiek guztiak eta bizi dugun hizkuntza egoera minorizatuak hemendik hamar urtera begirako panoraman hainbat itzal ilun erakusten digu, argiguneekin batera, jakina.

Izan ere, bereizi egin behar da zer den konpondu beharreko arazoa eta zer izan daitekeen hobekuntza baten albo ondorio bat. Adibidez, euskal hiztunak gehitzeko modu bat etxetik ez dakitenek ikastea izango da. Zenbat



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

eta indartsuagoa izan fenomeno hori, orduan eta hobeto izango da egoera soziolinguistikoa, baina ezinbestean igo egingo da euskara lehen hizkuntza gisa ez dutenen proportzioa. Beste kontu bat litzateke familia euskaldunetako haurrek etxean euskararik ez jasotzea hizkuntzaren transmisioa etenda dagoelako. Beste horrenbeste gertatzen da euskaldunen zahartzearekin: berez, onuragarria da edozein adin taldean euskaldunen kopuruak gora egitea (baita zaharrenen artean ere); bestelako kontua litzateke gazteen artean euskaldunen proportzioak behera egingo balu.

Immigrazioaren garrantzia begi bistakoa dela agertzen zaigu eta horrek esan nahi du ezin dugula gai horrekin beste aldera begiratzen jarraitu, ezer gertatuko ez balitz bezala. Immi-

grazioaren eragin soziolinguistikoari behingoan heltzeko aukera ematen digu ikerketa honek. Aztertu beharra dago zein den egoera eta sortu behar dago tresnak eta moduak beste herrialde batzuetatik datozkigun horiek euskarara ahalik eta gehien hurbiltzeko. Betiere, argi izan behar dugu immigrazioa ez dela gure arazo soziolinguistikoen erantzulea eta ezin dugula fokoa horretan soilik jarri. Gainera, dagoeneko badugu eskarmentua aurreko mendeen iritsi ziren migratzaileekin eta hori baliatu beharko genuke oraingoan eragin soziolinguistikoa ez dadin hain larria izan.

Arnasguneen ahultzeari buruzko aurreikuspenak ere kezagarriak dira; izan ere, ahalbidetzen dute euskal hiztunek beste inon baino modu naturalagoan garatzea euren hizkuntza-ohiturak eta belaunaldi arteko transmisioa bermatzea. Gainera, hiztun berriak sozializatzeko eta erabilean murgiltzeko gune aproposak dira, eta hizkuntzaren prestigioa eta erabilera aktiboa sustatzen dute. Ohiko bizitza euskaraz normaltasunez egin daitekeen guneen biziraupena hizkuntza komunitate osoari eragiten dion auzia da, ez lur-zati horietako biztanleena soilik.

Dena den, proiektio honetan jasotzen direnen bestelako alaketetara ere adi egon behar dugu eta horiek ere aztertzen jarraitu behar dugu. Adibidez, zer egingo dute D eremuan ibili arren gaitasun osorik lortu ez duten eta euskaraz ia sekula egiten ez duten horiek hizkuntzarekin euren familia sortu berrietan?

Etsipenetik urrun, euskarari behar duen garrantzi politikoa eman behar diogu eta tamainako neurriak planteatu behar dira hizkuntza biziberritzeko prozesuan aurrera egin dezagun.

TELMO LAZKANO

“Teknologia pedagogiara egokitu beharrean, pedagogia teknologiara egokitzeko bidea egin da eskolan”



Eskoletako digitalizazioak izan duen inpaktuaz eta eragin akademikoaz, etxerako lanak ordenagailu eramangarrian egiteaz, ikasleak motibatzeke teknologiara jotzeaz eta klaustro gero eta gehiagotan digitalizazioaz egiten ari diren gogoetez mintzatu gara Altxa Buruako kide Telmo Lazkanorekin. Parte hartu du Izarkomek argitaratuko duen eta ARGIak datorren asteko aldizkariarekin batera banatuko duen *Doitu. Ebidentzietan oinarritutako hezkuntzaren digitalizazio osasuntsua eta librea* gidan.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Hamahiru laguneko aditu taldeak txosten mardula osatu du eta txostena, ondoren, gida labur eta praktikoko bilakatu du Izarkom telekomunikazio kooperatibak. Hamahiru aditu horietako bat da Telmo Lazkano Muga, hezkuntzaren eta osasun digitalaren arloan aholkulari eta ikertzaile aplikatua: “Gida hau hausnarketarako oinarri izan daiteke ikastetxeetako klaustroetan”.

Aurreko gida, 2023an Altxa Buruaren laguntzaz Izarkomek kaleratua, gurasoei bideratuta zegoen: mugikorra seme-alabei noiz eta nola eman. Oraingo hau eskolari zuzendua da. Baina irakasle batzuei entzun izan diegu eskolan hain justu oso kontrolatuta dutela teknologiaren erabilera, arazoa “kanpoan” dagoela. Eta neurri batean arrazoiak dute. Digitalizazioa arlo sozialean eta digitalizazioa

hezkuntzan bi arlo oso ezberdin dira, erabiltzen diren produktu digitaletatik hasita. Ongi ezberdindu behar dugu gure zerbitzura dagoen teknologiaren eta bere zerbitzura nahi gaituen teknologiaren artean. Sarri, arlo sozialean darabilgun teknologia digitala, batez ere haur eta nerabeen artean, bere zerbitzura nahi gaituen teknologia da (*loot box*-ak edo saritze-sistemak dituzten bideo-jokoak, sare sozial jakin batzuk, pornografia plataformak). Eta gainera, psikologia, psikiatria eta pediatria elkarteek, Osakidetza profesionalak eta abar luzeak adierazia du esparru sozialean nagusiki erabiltzen diren produktu digital horiek zuzeneko eragina dutela osasunean.

Baina fokua eskoletan erabiltzen den teknologia digitaletan jartzen du gidak.
Bai, Altxa Burua nagusiki aipaturiko arlo

sozial horretan fokalizatuta dagoen arren, hezkuntzan erabiltzen den teknologia ere kezka iturri handia da familien artean, eta datuetara joz gero, argi ikusten da egiten ari garen digitalizazioa arrazionalizatu behar dela.

2000. urte inguruan hasi zen eskoletako digitalizazio prozesua EAEn. Teknologia digitalarekiko kritikotasuna eta kontzientzia zabaldu ahala, zentzuz eta zuhurtziaz jokatzera jo da eskoletan, ala areagotu egin da sukar teknologikoa?

Europa guztia sartu zenean digitalizazioaren olatuan, ez zen hain erraza ahotza altxatzea, “kontuz, agian hau ez da horrela egin behar” esatea, baina urte askoren ostean, eta datuak mahai gainean, bestelakoa da egoera. Kontuak kontu, oinarritzat izan beharko genuke hezkuntzan hain masiboki zerbait sartzen delarik, bi froga egin behar direla: bate-tik, bermatu behar da ez duela kalterik ekartzen; bestetik, kasu honetan, ikasketak analogikoari balio erantsia ekartzen diola frogatu behar da, ebidentzia zientifiko sendoetan oinarrituta. Nabarmendu nahi dut hori ez dagokiola irakasleari edo ikasleen familiari, baizik eta gailu digital hauek hezkuntzan sartzeko grina duten agenteei. Ez zen halakorik egin, eta horrek ere azaltzen du gaur egun dugun egoera.

Baina olatu hori apaldu da ala ez? 2023-24ko EAEko digitalizazio planaren arabera, teknologia digitalaren erabilera orokortzea



helburu, 160.000 ordenagailu eta panel interaktibo sartu dituzte ikastetxeetan.

Eskola 2.0 programak gailu teknologiko pila bat ekarri zuen eskoletara, ikuspegi oso instrumentala zuen, eta gero hasi dira irakasleak gailu horietarako prestatzen. Alegia, teknologia pedagogiara egokitu beharrean, pedagogia teknologiara egokitzeko bidea egin du. Gaur egun, gauzak aldatzen ari dira eta hausnarketaren beharra oso zabaldua dago. Tsunamiaren osteko erresakaren arriskua dago, pendulu efektua, teknologiaz josita egotetik teknologia oro arbuiatzera, baina oreka aurkitu behar da, ikuspegi kritiko eta eraikitzailearen bidez. Egindako akatsak jaso, ikasi eta nahi dugun etorkizuna elkarrekin eraiki.

Digitalizazioaren gaineko hausnarketa zabaldua dagoela diozu. Azken urteetako digitalizazio prozesuaren inpaktua neurtu eta berraztertzea Eusko Jaurlaritzaren buruan dagoela uste duzu?

Esan dezakedana da ikastetxeetako klastro eta zuzendaritza asko eta askorekin elkartuta ikusi dudana: hausnarketa prozesuan dira hezkuntza komunitatean.

Are, hausnarketatik harago ekintzetara igaro dira ikastetxeetan. Gida hau, gainera, hausnarketarako oinarri izan daiteke ikastetxeetako klastroetan. Beste esfera batzuetan (Eusko Jaurlaritzari egiten diotzu erreferentzia), arrakala nabaritzen dut hezkuntza komunitatean ikusten dudaren eta goitik etortzen denaren artean. Goitik teknologia digitalaren bultzada handia ikusten dut, akritikoegia nire iritziz, eta ikastetxeetan aldiz, neurrigabeko digitalizazioari neurria hartzeko nahia.

Gidaren arabera, hezkuntzan azken urteetan eginiko “digitalizazio sutsuak” eragina izan du azken hamarkadan bizitako errendimendu akademikoaren “beherakada handian”.

Hori da, baina faktoreetako bat izango zen, ez bakarra, noski. 2012tik aurrerako PISA txostenetan horren inguruko gogoeta jasotzen da, eta adierazten da teknologia digitala ez dela zerbait negatiboa bere horretan, baina errendimendua hobetzeko gaitasun mugatua duela, eta puntu batetik aurrera kaltea ekarri dezakeela. IKTen erabilera mugatua den testuinguruan errendimendu akademikoak hobe delako eta gehiegizko erabilerak

errendimendu askoz okerragoa dakarrela ondorioztatua dute baita ere, esaterako, ISEAK ikerketek eta Karolinska institutuak. Neurozientzian dagoen munduko instituzio puntakoena da Karolinska suediarra. Herrialde hartako gobernuaren tizat hezkuntzaren digitalizazioaz azterketa oso garrantzitsua egin zuen, eta gero lerroburu pila bat atera ziren, Suediak hezkuntzatik pantailak ateratzen zituela esanaz, baina errealtatea da garai hartan Suedian *One For One* eredu zegoela, ikasleentzako ordenagailu bana, inongo liburu eta koadernorik gabe; txostenaren ostean berriro ere liburu eta koadernoak eskoletara bueltatu eta pantailak horien osagarri bihurtu zituzten.

Errendimendu akademikora bueltatuta, digitalki ikasteak, alegia gailu digitalen erabilerak, ez ditu espero ziren hobekuntzak ekarri, eta kasurik okerreanean, kalteak eragin ditu. Beraz, aztertu behar da zertarako, noiz eta norekin erabili nahi ditugun gailu digitalak, onurak baino kalte gehiago eragin ditzakete-eta.

Teknologia, noiz eta zertarako?

Ikerketak aztertu ditugularik, konturatu gara liburu digitalek ez dutela balio erantsirik ekartzen, eskuz idaztea eta pape-

rean irakurtzea ikasketaren funtsezko aldagai askotan askoz hobe delako, ulermen gaitasunean, pentsamendu abstraktuan, memorian, arretan, eta abar luzea. Noiz ikusi dugu baliabide digitalen balio erantsia ekar dezaketela? Papera iristen ez den tokietan: simulazioak, hiru dimentsioak lortzeko, aniztasunari erantzuteko... Horri guztiari neurria hartzeko garaian, ildo garbia ikusten dugu: analogikoak izan behar du oinarria eta digitalak osagarri.

Aldiz, ikasgai eta arlo gehienak jan ditu teknologia digitalak eskolan?

Digitalki ikastetik igaro behar genuke mundu digitala zer den irakastera, azken hori jorratzeko ikasgai propioa sortzera, ikasleei laguntzeko konpetentzia digitaletik ahaldundutze digitalera igarotzen. Baina horren ordez, digitalki ikastea bihurtu da ikasgai guztiak bustitzeko arriskua duen zehar-lerroa, eta kurioski, oso azaleko ezagutza digitala eskuratzen dute ikasleek, ahaldundutze digitala gehien behar den uneotan.

Altxa Buruak eskolara mugikorra eramatea debekatzeko eskatu ostean, beste norabidean jarri duzue arreta gidan: eskolatik bidalitako lanek ez dezatela suposatutako ordenagailu eramangarria erabili behar izatea etxean.

Hemen ebidentzia ez da horren zabal, baina bai Karolinska institutuak, bai Kanadako Osasun Institutu Nazionalak egindako ikerketek diote ordenagailu eramangarria etxera eramateak ez duela zertan hobekuntzarik ekarri errendimendu akademikoan, eta kasu batzuetan, justu kontrakoa, ezin izan delako begiratu eta kontrolatu ikasleak zein edukitan sartu diren etxean. Gainera, bizikidetza kontua ere bada, eta hor ebidentzia oso sendoa da: smartphoneak eskolara eramateak bizikidetza arazo larriak sortu ditu (argazkiak komunetan, bideoak irakasleei, ziber-jazarpena, pribatutasun urratze larriak...); bada, ordenagailu eramangarriak etxeko bizikidetzan ere eragin du toki askotan, hala helarazi digute Altxa Buruan: umeak behar ez diren edukietan sartzea, Polizia lana egin beharra, etxean dagoen elkarbizitzaren eta deskonexio digitalerako eskubidearen urraketa...

Hezkuntzaren bueltako diskurtsoek aipagai dute ikaslearen motibazioa, ikasketaren gako garrantzitsu gisa.

"Goitik teknologia digitalaren bultzada handia ikusten dut, akritikoezia, eta ikastetxeetan, aldiz, neurrigabeko digitalizazioari neurria hartzeko nahia"



Digitalki ikasteak ez ditu espero ziren hobekuntzak ekarri, eta kasurik okerreanean, kalteak eragin ditu



Eskolako ordenagailu eramangarria etxera eramateak sarri ekarri du umeak behar ez diren edukietan sartzea, eta eragina izan du etxeko bizikidetzan



Gain-estimatu behar ditugu gure ikasleak ez dutelako arretarik jartzen, ala ez dute arretarik jartzen gain-estimulatuta daudelako?



Eskolan dauden bitartean, EAEko ikasleen %46ak egunean gutxienez lau ordu ematen ditu pantaila baten aurrean; bada zer hausnartu



Motibazioaz gogoeta interesgarria egiten da gidan.

Klaustro askotan errepikatu izan didate: "Ez badugu bitarteko digitalik erabiltzen, ezin dut ikasleen arreta eskuratu", eta ziurrenik egia da kasu ugarian, baina horren aurrean, honako hausnarketa egin daiteke: gain-estimatu behar ditugu gure ikasleak ez dutelako arretarik jartzen, ala ez dute arretarik jartzen gain-estimulatuta daudelako? Eta erantzuna bigarrena bada, ikaslea gain-estimulatzen jarraitzea da bidea?

Gainera, zein estimulu bilatzen dugun ere gakoa da. Gidan azaltzen dugu hiru motibazio mota daudela: intrinsekoa, estrinsekoa eta transzendental, eta hezkuntzaren erronka handi bat, beharbada handiena, dela ikasleak bere burua ulertzetik hasi eta mundua ulertzeko ibilbide bat jorratzea, motibazio intrinseko eta transzendental aurkitzen saiatzea. Ordea, baliabide digitalen bidez sarri sustatzen dugu kanpoko estimulu edo erantzun bat (berehalakotasuna, saritze-sistema...) aurkitzeko nahiak jokabide bat baldintzatzea, eta horrek ondorioak dituela badakigu: ez du zertan errendimendu akademikoa hobetu eta hori estimulatzeko dakar beste biak (motibazio intrinseko eta transzendental) itzaltzeko joera.

Adimen Artifizialak iraultza ekarriko omen du...


Oinarria arestian aipaturiko bera da: egiaztatu ez duela kalterik ekartzen; ekartzen badu, ze markotan ekartzen duen; eta ikusi ea balio erantsirik dakarren. Berau txertatu nahi dutenen bizkar dago horiek aztertu ostean erabakia hartzea, ebidentziarik gabe esperimentatu eta erabaki beharrean.

Software askearen aldeko apustua egiten duzue. EAEko Hezkuntza Legeak ere hala jasotzen du, baina Microsoft eta Google dira jaun eta jabe gure eskoletan. Zaila da korronte nagusiari aurre egitea?

Zaila izan, bada, eta hainbat konpromiso eta interes dago tartean. Galdera da: noiz arte jarraituko dugu horrela? Izan ere, Hezkuntza Legea urratzen du, Googlerekin egindako hitzarmenak datu-urraketa larria ekarri du, eta gainera, badugu alternatiba. Adibidez, Eusko Jaurlaritzatik abiatutako Iradi proiektua.

Bai eskola, bai etxea aintzat hartuta, adituek gomendaturiko pantaila kontsumoa jartzen duzue ipar: 0-6

4.3 Ahalduntze digitala: gidalerro-proposamen bat



Ahalduntze digital mailakatur

Ahaiduntze digitala sustatzea, gradualki eta digitalen erabilera irakasteaz ari solik. Pantel bitartean, ikasleek hauen atzean zer gertatzen da helburua. Xedea da ikaskuntza digitala oinarri digitalaren ulermen kognitibo, etiko eta estruktural

Zergatik?

Erregun teknologiek, merkatu logika bizkor bati itultu-baita dute, beraz, lan mundura sartzeko 5-10 ahalbizta digitalaren erdigunean produktu onarritzaileak diren hainbat ikasi beharko diren. Hoz er litzateke klik egitea egun behar, klik horren azalduz digitala ez dator aplikazio edo gailu nola funtzionatzan duten, nola diseinatzan diren eragin duten ulertzetik baizik.

Teknologia goizegi eta kritikotasunik gabe erabiltzeko- gaitasuna murriztu. Kompetentzia digitala, irakaskalaren beraren errendimendua konputar digital bat bultzatzen du, ikasleak benetako konputar uztan dituztenak. Ezin gara hiririk kritikoa irizpiderik eragutzarik gabe; bestela esanda, ez gabe, eta arlo digitalean berdin gertatzen da. Materiala da.

Nola?

[illegible]

ARGIAk datorren asteko aldizkariarekin batera banatuko du *Doitu*. *Ebidentzietan oinarritutako* hezkuntzaren digitalizazio osasuntsua eta librea gida.

urte artean, zero ordu; 6-12 urte artean, egunean gehienez ordubete; 12 urtetik aurrera, egunean gehienez bi ordu. Helburu horietatik oso urrun gauden honetan, nondik hasi?

Espainiako Estatuan, eskolan pantaila gehien erabiltzen duten ikasleak Euskal Autonomia Erkidegokoak direla diote ikerketek: eskolan dauden bitartean, gure ikasleen %46ak egunean gutxienez lau ordu ematen ditu pantaila baten aurrean (Espainiako Estatuan, batez beste, %17ak). Beraz, bada zer hausnartu eta nondik murritztu. Halere, batez ere etxean egiten den pantailen erabilera da haur eta nerabeen garapenean eta ongizatean gehien eragiten duena (lehen aipatu moduan, aisialdirako orokortu diren produktu digital jakin batzuegatik), eta familiak, eskolak, komunitateak horri erantzun behar dio, baina benetako alda-

keta estrukturalerako multinazional horiek legez erregulatu behar dira. Australia izan da sare sozialak adingabeentzat debekatzen lehena, eta European ere bide horretan ari dira. Berez, ez zaie nerabeei ezer debekatzen, debekatzen zaie enpresa jakin batzuei beren produktu potentzialki kaltegarriak nerabeengana iristea. Erantzukizuna haiena da eta nerabeek lortzen badute sartzea, kontuak plataforma horiei eskatu behar zaizkie. Bitartean, bestelako alternatiba etikoagoak jorratu daitezke, Mastodon sare soziala kasu.

**Bestalde, Altxa Burua olatu
handi bilakatu da. Zein lorpen
azpimarratuko zenuke? Seme-alabei
lehen mugikorra emateko adina
azteratzeari lotuta, adibidez, badira
garaipenak.**

Bai, olatu handia da, eta zintzo jokatuta,



uste genuena baina handiagoa, 20.000 lagunek egin zuten bat iaz aurrera eraman genuen egitasmoan. Ez da erraza lorpen bakarra aukeratzea, gauza asko egin dira, baina pertsonalki, bi kontu nabarmenduko nituzke: batetik, kristau eskola, ikastola eta eskola publikoek bat egitea hone-tan; dagoeneko ia 100 ikastetxe atxikitu dira mugimendura. Bestetik, profilez eta pentsamenduz oso ezberdinak diren per-tsonak ere honen guztiarren inguruan elkarrekin borondatez lan egitea erabaki zana, helburu bakarrarekin: gure txiki-en ongizatea hobetzea. ●

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2025

FINALAURREKOA - LEHENENGO BUELTA

www.bertsozale.eus/bizkaitotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

URRIAK 26

domeka

ZEANURI

IBARRETA FRONTOIA. 17:00

Aissa Intxausti Aburruza,
 Aitor Bizkarra Ruiz,
 Bittor Altube Sarrionandia,
 Imanol Uribe Albizuri,
 Jone Uribe Albizuri eta
 Oihana Bartra Arenas.

Gai-jartzaileak: Beñat Vidal Gurrutxaga.



Antolatzaileak: Euzko Lehen Bertsolari Elkartea, Bizkaia Lehen Bertsolari Elkartea, Bertsosarrerak



Patroiz: Euzko Lehen Bertsolari Elkartea, Bizkaia Lehen Bertsolari Elkartea, Bertsosarrerak



Zuzendaritza: Aissa Intxausti Aburruza, Aitor Bizkarra Ruiz, Bittor Altube Sarrionandia, Imanol Uribe Albizuri, Jone Uribe Albizuri eta Oihana Bartra Arenas

Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2025

Lehenengo fasea
Urriak 26, igandea
LOS ARCOS
17:30ean, Kultur Etxean

Ekain Alegre Gil
Joanes Illarregi Marzol
Kattin Madariaga Apaolaza
Mikel Lasarte Cia
Saioa Alkaiza Guallar
Xabi Maia Etxeberria
Gai-jartzailea: **Ander Aranburu Arriola**



Andrea Arrizabalaga

“Migraineekin eta bereziki emakumeek pairatzen ditugun gaixotasunekin asko dago egiteko”

13 urterekin diagnostikatu zizkioten migrainak Andrea Arrizabalaga kazetariari (Bilbo, 1981). Buruko mina, goragalea, argiarekiko sentsibilitatea eta beste sintoma batzuk eragin ditzakeen gaixotasun neurologiko bat da. Biztanleriaren %15ari eragiten dio, eta batez ere emakumeek pairatzen dute. Arrizabalagak salatu du desinformazio handia dagoela eta gutxi ikertzen dela.

OLAIA L. GARAIALDE PELLO MAUDO

Ahizparekin marrazki bizidunak ikusten ari zela begi batetik gaizki ikusten hasi zen Andrea Arrizabalaga. Hasieran iruditu zitzaion telebista zela, irudia moztuta balego bezala ikusten zuelako, baina ahizpari ea ongi ikusten zuen galdetu, eta baietz esan zionez, amarengana joan zen. Orduan konturatu zen begi batetik ez zuela ikusten: “Hortik hamar minutura buruko mina hasi zitzaidan. Itzela izan zen. Mina geroz eta handiagoa zen eta aspirina bat hartu nuen. Gero botaka hasi nintzen goizeko bederatzietatik ia gaueko bederatzia arte. Ez genekien zer zen eta izututa geunden”. Neurologoak argi esan zien migrainak zirela. 13 urte zituen diagnostikoa jaso zuenean.

Hortik egun gutxira, lehenengo hilekoa izan zuen. Horregatik, migrainen eta aldaketa hormonalen artean harremana dagoela iruditzen zaio: “Ez datoz beti hilekoarekin bat, baina batzuetan

“Botika hartu, pertsianak jaitsi, ohean sartu eta hatzak gurutzatzen ditut migrainak leunagoak izateko”

obulazioarekin bai”. Horrez gain, batez ere lasaiago dagoen momentuetan izaten ditu agerraldiak; adibidez, esnatu berrian edota egun osoa kanpoan egon ostean etxera itzultzen denean: “Normalean ez dira gertatzen erne zaudenean”. Azaldu du askotan soilik buruko minarekin lotzen direla, baina hori baino askoz gehiago direla.

Arrizabalagaren kasuan, begiak emandako abisuarekin hasten dira migrainak. Txikitan bezala, begi batetik ikusteari uzten dio, eta hortik hamar minutura buruko mina hasten da: “Botika hartu, pertsianak jaitsi, ohean sartu eta hatzak gurutzatzen ditut migrainak leunagoak izateko”. Nabarmendu du “oso gogorak” eta “degaitzaileak” direla: “Lehenengo begia, gero buruko mina, gero hasten zara zorabiatzen eta botaka. Batzuetan migrainak etortzen dira oraindik sabela hutsik duzunean. Ez duzu deus sabelean, baina gorputzak botatzeko eskatzen dizu, eta hoge minuturo botaka egiten ari zara”.

Diagnostikoa jaso zuenetik, agerraldiak baretzeko gauza pila bat probatu du; hala nola botika tradizionalak, homeopatia eta osteopatia: “Migrainak dituzu eta pairatu behar dituzu, botika hartu eta ohean sartu, esaten digute medikuek askotan”. Adituek diote, bestalde, haurdunaldiarekin denboran zabaldu egiten direla. Arrizabalagaren kasuan, haurra

izan zuenetik geroz eta agerraldi gutxia-
go izan ditu: “Lehenengo hiruhilekoan
bi migraina gogor izan nituen, baina ez
horren bortitzak. Hortik aurrera, edoski-
tzearekin, urtebete pasatxo egon nintzen
migraina barik”.

“Ama zarenean eta
migraina bat duzunean
jada ezin duzu bakarrik
zuregan pentsatu, zeozer
gehiago duzu buruan”

Horrez gain, elikadura aldaketak
ere eragina izan duela uste du. Izan
ere, haurdunaldian kontsumoa jaitsi
eta beganismorako trantsizioa egiten
hasi zen: “Dena oso lotuta dago, baina
ez dakit esaten zergatik izan den. Nire
nutrizionistak esaten dit hantura eragi-
ten duten elikagai asko kendu ditudala;
esate baterako, haragia, hestekiak eta
esnekiak. Orain konturatzen naiz askoz
ere osasuntsuago jaten dudala, baina
ez zen nire asmoa. Animaliegatik egin
nintzen beganoa, eta zeharka sentitu
ditut aldaketak”.

BELDURRAK ETA KEZKAK

Biztanleriaren %15ak pairatzen ditu mi-
grainak, eta batez ere emakumeek. Uste
du bereziki emakumeei eragiten dieten
gaitzen inguruko desinformazio handia
dagoela eta gutxi ikertzen dela. Horien
adibide dira fibromialgia eta endome-
triosia: “Migraineekin eta bereziki ema-
kumeek pairatzen ditugun gaixotasune-
kin asko dago egiteko oraindik. Ez dira
ondo ulertzen, gutxiesten dira eta aitzaki-
a bezala ikusten dira askotan. Horrek
estigma sortzen du”. Behin baino gehia-
gotan, albistegia prestatzen ari dela erre-
dakzioetik joan behar izan du gaizki senti-
tu delako, eta horrek kezka sortzen dio:
“Batuetan neure buruari galdetzen diot
lankideek zer pentsatuko ote duten mi-
graina batengatik alde egiten dudanean.
Beste bat jarriko dute nire postuan? Ez
da inoiz gertatu, baina gauza horiek pen-
tsatzea tristea da”.

Beldurrak eta kezkak dituen arren,
orokorrean bere inguruak ulertzen duela
sentitzen du. Alabaina, jende berria eza-
gutzen duenean harritu egiten direla iru-
ditzen zaio: “Eduki izan ditudan bikoteki-
deak ikaratu egin dira nire migrainekin.
Erredakzioan gertatu zaidanean, jende
berria *flipatuta* geratu da”. 6 urteko haur
bat dauka, eta orain hasi da apur bat uler-

tzen amari zer gertatzen zaion. “Hasieran
pila bat ikaritzen zen. Orain badaki mi-
grainak ditudala eta ohean egon behar
dudala. Batuetan ikusten du goizean
migraina dudanez arratsaldean ez noala
lanera. Orduan, pozten da arratsaldean
etxean nagoelako. Ez dakit berarentzat
txarra edo ona den”, aitortu du.

Kontatu du haurrak orain gehiago
ulertzen duen arren, gogorra dela mi-
grainak eta amatasuna uztartzea: “Ama
zarenean eta migraina bat duzunean,
jada ezin duzu bakarrik zuregan pentsa-
tu, zeozer gehiago duzu buruan. Orain ez
da ohera etortzen, baina lehen ikaritzen
zenez, logelara etortzen zen”. Etxean ba-
karrik daudenean eta agerraldi bat due-
nean, batuetan telebista pizten dio, eta
agintea erabiltzen ikasi duenez, erraza-
goa da entretenituta mantentzea: “Aurre-
koan lau ordu egon zen titan bat bezala,
baina ezin da bakarrik egon. Gustuko du
eta entretenituta egoten da, baina au-
rreko egunean, nigana hurbildu zen, eta
esan zidan: ‘Hobeto zaude ama? Jateko
zerbait egingo didazu?’. Gaixoa, zenbat
denbora aguantatzen”. Arrizabalagaren
amak laguntzen dio maiz, baina egungo
familia egoera dela-eta ezin dio horren-
beste lagundu. Halere, azken aldian oso
noizbehinka ditu agerraldiak. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Bihotza. Beti esan diot semeari
bihotz onekoa izan behar dela. Esaldi
hori dut buruan, eta uste dut lotura
handia duela beganismoarekin
edo animaliekiko errespetuarekin.

‘Badakizu zu zarela munduan
nire bihotzetik gertuen egon den
pertsona? Zuk bakarrik entzun duzu
nire bihotza horren gertutik’, esaten
diot umeari”



ABENTURA ERRALDOIA IPUIN-BILDUMA



Haurrek Alajainetaraino bidaiatu zuten eguna

✂ MIKEL GARCIA IDIAKEZ 📷 MIKEL OLABIDE / ARGIA CC BY SA

Erraldoiak beti direlako aitzakia ona dibertsiorako, Irungo aretoa bete familia egin dute *Abentura erraldoia*. *Hegan* ipuinaren aurkezpena egileek. Gorka Bereziartua idazlearen kontakizunak eta Adur Larrea ilustratzailearen marrazkiek abenturan murgildu dituzte bertaratuak, Alajaineta herriaren bila. Mendira igo dira, trenean ibili dira, eta zaldian, baita zepelinean ere! Eta halako batean, iritsi dira Izar, Ainubi eta Etxahunen herrira. Alajainetan, erraldoi hegalaria ikusi dituzte, gaztaina saltzailea, eta beste makina bat kontu. Kukutturlio, Adur Larreak arbelean marraztu ahala, segituan antzeman du publikoko batek baino gehiagok.

Galdera inportanteak egin dizkie Bereziartuak ikus-entzuleei: nola erakarriko ditugu erraldoi hegalaria etxera? Zer egingo zenukete erraldoi bat izango bazenute?

Nolako erraldoia sortuko zenukete? Umeen irudimenaren lekuko, guztien ekarpenekin Irunen sortu duten erraldoia, Adur Larreak arbelean gorpuztua: hiru begiko erraldoia nahi zuten umeek, mihi luze-luzeduna, zuhaitz baten enborrarekin, aizkorarekin, eta gerrikoa eta pololoak soinean. Zalan-tzarik gabe, erraldoi berriren bat egiteko asmoz den konpartsa bati baino gehiagori ideia eman diote haurrek.

Ikus-entzule finek erne jarraitu dute saioa, baina zer arraio, umeak dira, mugitzen, jolasten, barre egiten ere ikusi ditugu, festa giroa izan da nagusi, eta aretotik plazara egin du jauzi aurkezpenak. Bidasoako konpartsaren unea heldu da: kalejira, dantza eta musikak hartu du segida. Gelditu gabe aritu dira Lurra, Ura, Haizea eta Sua erraldoiak, baita Udaberria, Uda, Udazkena eta Negua ere, eta

arrantzaleak, galdaragileak, haurrek berriak dantzatzeko dituzten Galtzagorriak, eta, jakina, Karrikuernos deabrua, Bidasaldeko umeen kuttunenetakoa.

Jai giroan, *Hegan* liburua erostera familia ugari gerturatu da ARGIAren karpaa, eta bide batez, "Abentura erraldoia" ipuin-bildumako lehenengo liburua ere, *Salba dezagun kalejira*, eskuratu du hainbatek, baita ARGIAk berriki kaleraturiko Erraldoi eta buruhandien karta-jokoa ere. Erosleek Gorka Bereziartuak idatzitako dedikatoria eta Adur Larreak propio egindako marrazkia jaso dute opari. ●

Erraldoien ipuinak edota kartak eskuratzeko, sartu ARGIAren Azokan: azoka.argia.eus



Greba berdintasunaren paradisu



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Islandia, 1975eko urriaren 24a. Mugimendu feministak deituta, herrialdeko emakumeek greba egin zuten. %90eko jarraipena izan zuen ekimenak, eta herrialdea erabat geldiaraztea lortu zuten.

Duela 50 urte, lan egiteko adinean zeuden emakume islandiarren erdiak zeukaten ordainpeko enplegu bat, gehienak sektore jakinetako beheko mailetan. Gainera, lan berdinetatik gizonezkoek jasotzen zuten soldataren %60 baino gutxiago kobratzen zuten batez beste.

NBEk 1975 Nazioarteko Emakumeen Urtea izendatu zuen, eta, testuinguru horretan, nagusiki AEBetako eta Eskandinaviako gainerako herrialdeetan jaiozten ari ziren mugimendu feministen eraginpean, 300 emakume islandiarrek Galtzerdi Gorriak mugimendua sortu zuten –izena daniar feministengandik hartuta–. Udazkenerako emakumeen greba deitzea erabaki zuten, “soldata arrakalari eta bidegabeko lan praktikei aurre egiteko” eta “Islandiako ekonomian eta gizartearen emakumeen lana ezinbestekoa dela erakusteko”. Baina gizon askok barrugarri utzi zuten ekimena eta emakume askok mesfidantzaz begiratzen zioten mugimendu feministari.

Horregatik Galtzerdi Gorriek azal leun atsegina jarri zioten ekimenari. *Kvennafridagurinn* deitu zioten grebari, hau da, Emakumeen Egun Librea, “greba” hitzak emakume asko uxatuko zituela.



Duela 50 urteko Islandiako emakumeen greban, Gudrun Erlendsdottir bizkarrez, manifestuetako bat irakurtzen. Urte batzuk geroago Islandiako Auzitegi Goreneko presidente izendatuko zuten.

koan. Baina mamia sakon landu zuten. Emakumeen egoerari buruzko ikerlan eta txostenak osatu eta herrialdeko komunikabideetan zabaltzea lortu zuten, herritarren kontzientziazioa bultzatuta.

Urriaren 24an emakume islandiarren %90ek erabateko greba egin zutenean garbi geratu zen mugimenduak klase eta ideologia guztietako emakumeak biltzea lortu zuela. Eta ordainpeko lanpostuak uzteaz gain, etxeko eta zaintzako lanak ere baztertu zituzten egun batez, eta horrela lortu zuten herrialde osoa geldiaraztea.

Hurrengo urtean, Islandiako legebiltzarrek soldaten parekotasuna bermatzeko legea onartu zuen, munduan lehena. Gaur egun, Genero Arrakalaren Indizearen zerrendan lehen postuan dago Islandia (0.9350).

Eta, hala ere, duela bi urte, 2023ko urriaren 24an, 1975eko emakumeen greba errepikatzea erabaki zuten. Antolatzailen esanetan, “oraindik genero desberdinkeria handia dago, eta ekintzarako behar larria, *berdintasunaren paradisu* deitzen diguten arren”. ●



RYAN GRAY

Erromatar hilarri bat New Orleansen

Urte honen hasieran, Tulane Daniella Santoro antropologoak II. mendeko erromatar hilarri bat topatu zuen bere New Orleanseko (AEB) etxeko lorategian.

Aurkikuntza adituen esku utzi eta jakin zuten hilarria Civitavecchiako (Italia) museotik desagertu zela Bigarren Mundu Gerran. Pieza jatorrira itzuli dute, baina

ez dute lortu jakitea nork eramane zuten AEBetara. Hipotesi nagusia da AEBetako armadako kide batek ostu zuela. Baina ez zen salbuespena izan, Italiaren “askapen” prozesuan, AEBetako armadak bertako ondarea espoliatu zuen, gutxienez, goi karguen baimenarekin edo, askotan, parte hartze zuzenarekin. ●

EKAITZAREN ERDIAN



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Pasa den astean lurraren eta uraren defentsan ari zen Hego Amerikako emakume bati entzundakoak argitu zidan kopeta. Ekaitzez eta babeslekuez ari zen. Berak Txiapaseko beste bati aditu zion eta ekaitzaren erdian argiunerako atea ireki omen zitzaion: babeslekuen bila abiatu zen, baita aurkitu ere.

Horixe gertatu zait niri asteburuan. Ekaitz betean dagoen mundu honetan, babeslekuen existentziak berak zizt egin dit behin baino gehiagotan. Zorionez.

Larunbat goizean: Bionekazaritzak antolatzen duen azoka ekologikoa. Gastetzer joatea ez da gazta saltzera joatea –hori ere gertatzen den arren–, baizik eta arabarrek eraikitako aterpean atseden hartzea eta artzain honen arima goxatzea.

Aurten bakarrik joan naizenez, ez dut tarterik izan luze eta patxadaz hitz egiteko, baina izandako aukera apurkak artiletan bilduta ekarri ditut. Esaterako, JM lagunarekin izandako hitzak. Hilabete hauetan, partekatutako sufrimenduari tokia eman diogu; eta etxeko gainontzekoak bertan ez baziren ere, gurekin ari ziren haiek ere. Ekaitzaren erdian, arabarren babesean, topalekua aurkitu genuen zauriak bestearen begietan argi entzuteko, bere ahotsean ozen ikusteko.

Larunbat arratsaldean: Biziola kooperatibak tokia egin dio Baserritar Bilgunea sindikatu berriaren eratze batzarrari. Bizi dugun ekaitza baserrietara indartsu heldu da, aspaldian. Nahiz eta hemen agerriagoak diren ekaitzak utzitako txikizioak eta herrenak, kanpainako ospitaleak ez dira landa-eremura hain erraz heltzen.

Arrazoi batzuegatik edo besteengatik, asko gara Gipuzkoan baserritarren sindikalizazioa hutsunea sentitzen dugunok, baita sindikatu hitzaren beraren hustuketa eta erabilera okerra ere. Are gehiago,



Urriaren 11n Lazkaoko Biziolan Baserritar Bilgunea sindikatu berria aurkeztu zutenekoa.

batzuen iritziak, gehienetan baserritarrok kontratu peko langileak ez garenez, ezin dugu sindikatua osatu. Euskaltzaindiaren definizioaren arabera, sindikatua da: "Kideen interesak babesten dituen elkarte, bereziki langileen interesak babesten dituen". Gremio hitza baliokide izan daiteke: lanbide bera duten kideek osaturiko elkarte.

Esan gabe doa baserritarren interesekin bat egin beharko luketela herritar ororen interesekin. Alde batetik, gainontzeko izakiak bezala, pertsona oro gara natura, eta bizitzaren zaintzak berezko duelako bizilekuaren zaintza. Bestaldekik, elikaduraz ere ari garelako; izan ere, elikadura pertsona guztien oinarritzeko eskubidea da –izan beharko luke–. Hori dela eta, nahiz eta baserritar sindikatua izan, Baserritar Bilgunean herritarrek ere badute tokia. Irekitasun horretaz gain, pozgarria da ekologikoan zertifikatuak ez dauden baserritarrek ere parte hartzea sindikatu berrian. Besteak beste, denontzat posible den bizitza desiragarria lortze aldera,

ekaitzaren erdian mota guztietako jakintzak eta begiradak jasoko dituen babesleku anitza behar dugulako.

Igandean: Anoetako euskal jaia. Azoka eguna heldu baino lehenago sentitu duzu babes. Egunaren antolaketan dabiltzaren ahotsek estali dituzte trumoi hotsak. Egunean bertan gertatutako besarkadek lehortu dute hezurretaraino sartutako babesgabetasunaren hezea. Ez dago zalaparta mediatikorik, barrurako lanak inguruan sortuko duen onura da ipar-orratza. Herriitik herriarentzat xuxurlaka. Mimo. Intentzioz.

Eskerrik asko denoi, bizi dugun –eta gaituen– ekaitzaren erdian, babeslekuak eraikitzen eta zaintzen ari zareten guztioi.

Eskerrik asko, gogorazteagatik ekaitzak heriotza, sufrimendua, txikizioa eta ahanztura ekarriko dituen arren, izango ditugula bizitza birsortzeko haziak.

Landa-eremuk eta baserrietako emakumeek kolkoan gordetako haziak, orain ere. ●

A ZE FAUNA!

SAGU TXIKI, SAGU MAITE, ZULOTXOAN GORDE ZAITEZ...



IRATI DIEZ VIRTO
ARANZADIKO KIDEA



4028MDK09 / CC-A-SA 3.0

Zuhaitzen hostoak erortzen ari dira, eguzkiak ez du hainbeste berotzen baina azken izpiak aprobetxatuz, bazkalostean mendi bueltatxoan ematera irten gara. Mendiaren soinueta barneratuta, bat-batean tronpetak diruditen “kru-kru-kru” hotsak entzuten dira. Begirada zerura altxatu, eta hara V itxuran hegan doan hegazti multzo eder bezain zaratatsu bat: kurrilo arruntak (*Grus grus*) dira, umatze lekuak utzita negua pasatuko duten eremuetara migrazioan.

Euskal Herrian umatzen ez den arren, aski ezaguna da bitxia bezain liraina den hegazti hau, urtero baikara bere migrazioaren testigu. Hegan doazela ikusteko errazak dira gainera, alde batetik, ez direlako txikiak: 1,20 metroko altuera hartzen dute eta hegotik hegora 2 metro baino gehiago izan ditzakete. Bestetik, talde handitan migrazten dutelako.

Gris kolorekoa da kurriloa, hanka zein lepo luzeekin. Burua eta lepoa beltzak ditu, baina bi marra zuri irteten zaizkio begialdetik, mozorroa balu bezala, eta bi lerro zuriak lepoaren atzealdean elkartzen dira. Kasko gorria ere badu, begi gorriekin konbinatzen duena. Isatsak, aldiz, luma-motots bat dirudi.

Europa erdialde eta iparraldeko zingira eta hezeguneetan umatzen dira, eta urtean txito bat edo bi izaten dituzte. Uda amaitzean toki epelago batera migratzeko garaia da eta kurrilo familiak beste familia batzuekin elkartu eta migratzeko prestatzen dira: talde batzuek 3.000 kilometro baino gehiagoko bidea izango dute aurretik. Familia talde handi hauetan

ETXE SAGUA *Mus domesticus*

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna / Karraskaria.

NEURRIA: 7,3-10,2 cm artean eta 12-25 g artean.

NON BIZI DA? Gizakia bizi den lekuetan. Basati bihurtutakoak ere badira, landatutako belaze inguruetan eta harresietan bizi direnak.

ZER JATEN DU? Gizakiaren inguruan bizi direnak orojaleak dira. Eremu basatiagoetan bizi direnek haziak jaten dituzte gehienbat, eta hainbat ornogabe.

BITXIKERIA: Azken ikerketek diotenez, European ez zen nekazaritzarekin batera zabaldu, itsas bidaiekin eta merkataritzarekin baizik.

BABES MAILA: IUCNren Zerrenda Gorrian “Kezka txikiko” espezie modura izendatua.

mantentzen dira bai migrazioan zein neguan ere. European zehar umatzen diren kurrilo gehienek Espainia hegoaldean igarotzen dute negua, eta hor gaude gu, erdibidean, urri eta azaroan zehar beraien hegaldiak miresten.

Negute eremuetara heldutakoan, hezegune inguruetan, laborantza lurretan eta batez ere, arte dehesatan igarotzen dute denbora, ezkurrak izugarri gustatzen baitzaizkie. Horiek agortzean ordea, elikagaiez aldatzea beste erremediorik ez dute eta zereal ale, erraboila, lekale, zizare eta barraskiloak jaten dituzte; noizbehinka, ornodunen bat ere bai. Gaua pasatzeko etzalekuetan biltzen dira, neguko gau hotzak igarotzeko elkarren goxotasuna bilatuz, agian.

Otsaila eta martxoa heldu bezain pronto ekingo diote berriz migrazioari, umatze lekuetara bueltatzeko. Oraingoan familiak banatu egingo dira, helduak lehenago abiatuko baitira, eta gaztetxoek, aldiz, beraien bideari hasiera emango diote. Euskal Herrian udaberriko migrazioan ere kurriloak ikusten diren arren, ez da udazkenekoa bezain deigarria izaten: batetik, familiak banatu ostean hegazti multzoak txikiagoak izaten direlako eta bestetik, bidea ekialderagotik egiten dutelako.

Gurean umatzeko zein negua pasatzeko hainbat faktore mugatzaile dituzte kurriloek: esaterako, gizakion eragozpenek eta linea elektrikoekin talka egiteak ugaltze arrakastan eragina dute. Negute eremuetan aldiz, larreen gutxitzeak, isilpeko ehizak edo etzalekuetan pairatzen dituzten eragozpenek kalteak eragiten dizkiete. Hala ere, zorionekoak gara, badaudelako Euskal Herrian negua pasatzen dutenak: kurrilo talde batzuk Nafarroa hegoaldean geratzen dira. ●

IROLDEGIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ariketa egiten da iroldegian, baina ez da inolaz ere kiroldegia. Ariketa ez da kirola, alderantziz apika bai, kirola ariketa. Bizitzak eskatzen duen aritzea da ariketa, baina kirola... Kirolak berezko dituen espezie berekoen arteko borroka grina eta parekoa gainditu eta ahal bada zanpatu beharra, tarteka gustatzen zaizkidanaren burutazio, imintzio laurden bat izaten dut; inondik ere barrunbe basak hurbileko genealogian ditugu, baina ez dut kirola zipitzik ere atsegin.

Irola bai, gustuko dut. Irola edo iroldegia. Luartokia alegia. Edo simaurtegia. Komunari edo bakargelari ere esaten zaio "irol", baina simaurtegiari helduko diogu guk.

Simaurketa nagusiak egiteko garaia iritsi da. Udazkenean uztak bildu eta behar bezala altxatzeko betarik gabe, hemen da uza emale diren lur horiei txermoni ordaina itzultzeko aroa. Udazkena bada garai onena, negua ere ez da kaxkarra. Baina ongarria zenbat eta lehenago eman, orduan eta aukera gehiago izango du lurtean sartu eta bertako eskubide osoko kide egiteko; han ezagutuko ditu mikroorganismoak, handixeagokoak, animalia jendea eta landaretzaren sustraije sarria, lagun berriak, denak bere zain. Denak gose. Baratze, soro, belaze, sagasti, mahasti, lorategi, noranahi doala ere, ongarriak berezko hartzidura festa han eramango du, inguruak epelduz, berotuz, alaituz.

Udazkenak hori ere ona du, denbora. Denbora ematen digu hurrengo sasoiari



patxadaz begiratu eta ganbara pitzatu arteko hausnarrari ekiteko. Horixe egingo dute gainontzeko bizidun gehienek ere. Bitarte horretan, sasoi berria etorri artean, ongarria, dela simaurra, dela satsa, dela luarra, dela zernahi, lurtean desagertuko da, bat egingo du bertako biztanleriarekin eta pronto jarriko da neguaren amaierak piztuko dituen izerdi berriak, hozitzeko grinak eta abar elikatzeke.

Ez utzi atzeragorako. Bizi Baratzea-ko ikurritzetako bat haxe da: "Garaian garai-koa garaiz". Ekin iroldegirako bideari. Uste baino garrantzitsuagoa da ongarri organikoari lurtean bere denbora ematea, udazkenak guri ere ematen digun denbora hori bera. Deskuiduan, behar adina simaurrik edo satsik edo luarrik ez baduzu, banatu daukazuna landu gabeko lurtean, gorritu gabekoetan alegia. Gorritutakoetan, hau da, baratze, soro, lore-taulen edo antze-

koetan ongarri berdea erein dezakezu. Ongarri berde ohikoena oloa (*Avena sativa*) eta txirta edo zalke (*Vicia sativa*) nahaske da. Ez dituzte luartutako organikoaren lanak egiten, beste era batekoak baizik. Oloak bere lau metroko sustraiekin lurra sakon arakatzen du, zulatu, sakoneko jakiak gora ekarri eta hildakoan sustraiak usteldu eta bere zuloak ongarritz beteta geratzen dira. Txirta edo zalkea lekaduna da eta itundutako ezkontzen bidez, lagun hartzen dituen bakterio batzuekin gauzatzen duten elkarlanari esker, lurra nitrogenoz aseta uzten dute. Nitrogenoa da landareen likagai nagusia.

Orain erein eta udaberrian moztu eta lurrari ematen zaizkio landare horiek, oso-osorik. Udaberrian jarriko ditugun barazki eta loreek ederki baliatuko dituzte. Zain dago lurra; sardea dantzatze-ra iroldegia. ●



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.



NAVARRA : NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

GUNEKO ARRAUTZAK

“KLIMA MEDITERRANEOAN BELARRA IZATEKO ASKO MUGITU BEHAR DITUGU OILOAK”

Hamarkada pasatzoko ibilbidea du San Martin de Unxen kokatuta dagoen Guneko proiektuak. 2013tik arrautzak ekoizten dituzte Mikel eta Igor Olite anaiek, eredu ekologikoan. “Aiton-amonak herrikoak ziren, baina herritik hirira mugitu zen belaunaldiaren semeak gara gu”, dio Mikel Olitek. Dena den, lurrarekin eta nekazaritzarekin harremana beti mantendu dute bi anaiek: bata barraskiloak ekoizteko proiektu saiakera egin zuen aurretik, eta bestea, mahastizain aritua da. Azkenean, aurreko belaunaldiak egindako bidea kontrako noranzkoan egitea lortu dute: hiriburutik herrira buelta.

ERROTAZIOA OINARRI

2012an ekin zieten anaiek oilategiko lanei, eta eraikina jasangarritasun irizpideen arabera diseinatu zuten. “Material naturalekin egindako eraikina da, lasto fardoekin altxatu genituen paretak, zura asko erabili genuen, lastoa babesteko buzina eta karea...”. Aire giroturik ere ez dute oilategian, horren ordez leiho gurutzatuak dituzte, eta ipar haizea dagoenean irekita oxigenatzen dute gunea. Elektrizitatea eta ur beroa eguzki plaken bidez lortzen dituzte. “Ez gaude sarera konektatuta, eta ideia da ahalik eta autonomoen izaten saiatzea”, gaineratu du.



Ekoizpen moduaz, hasieratik zuten argi ekologikoan ariko zirela. “Ekoizpen proiektua familiarik jaso dutenek, agian, beste eredu bat ezagutu dute, eta horiek txipa aldatu behar dute, baina ez da gure kasua. Guretzat erraza izan da, gure buruan ez zen beste aukerarik sartzen”, dio, 2,6 hektareako lursaila dute Guneko proiektuan, 13 zatitan banatuta. “12 zati erabiltzen ditugu oiloentzat, errotaazioa egiten dugu eta egunero parkez aldatzen ditugu”, dio. Izan ere, iparralderago belarra errazago hazten dela dio, baina klima mediterraneoan belarra izateko eta lurraren emankortasuna bermatzeko mugimendu gehiago egin behar dira.

SALMENTA BERTATIK BERTARA

Nafarroan bertan, inguruko herrietako dendetan saltzen dituzte arrautzak Olite anaiek, 40 bat kilometroko eremuan: Lizarraldea, Zangotzaldea, Gares ingurua,

Tafalla aldea, Iruñerria... “Batik bat dendetan saltzen dugu, baina azoka batzuetan ere bai”, dio. Banaketa haiek egiten dute.

Azken aldian, bisitak ere antolatzen ari dira anaiaiek, batez ere jendeari haien lan egiteko modua erakusteko: “Bezeroek eta herritarrek gustuko dute hona etorri eta zuzenean lan nola egiten dugun ikustea”. Gainera, arrautzak izan arren proiektuko ekoizpen nagusia, baratzea eta olibondoak ere badituzte, eta horri lotutako hainbat ikastaro antolatu dituzte azken hilabeteotan. “Baratzezain batekin harreman estua dugu. Guk tokia eskaintzen diogu, baratzea eta bazkaria, eta berak bere jakintza jartzen du”, adierazi du. EHKOLEktiboko kide dira Olite anaiaiek, eta hain zuzen, azaroaren 22an bertan ospatuko dute Baserriko Uzta ekimena, Ines Osinagaren kontzertuarekin. Aukera bikaina proiektua bertatik bertara ezagutzeko. ●



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

**BESTE
MODURA
DENONA
DA ONURA**

Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>



Amaia Ezpeldoiren urratsen gibeletik, literatura bortuan

Euskal Herriko irakurle taldeen topaketak egin dira irailean Iratin, eta presentzia nabaria hartu dute hor Amaia Ezpeldoi detektibearen bueltako informazioek. Itxaro Bordak sorturiko pertsonaia da Ezpeldoi; estreinakoz 1994an agertu zen, eta harrezkero, hiru hamarkadaz, Bordaren sei eleberritan eta makina bat ipuinetan agertu da.

 PATXI GAZTELUMENDI  GONZALO SANTOMA

Ezpeldoiz gain, beste makina bat kontu ere jorratu ziren *Bortua eta literatura* jardunaldietan: Eñaut Etxamendiren obra, Ernest Hemingwayren poemak, Eneko Barberenarekin mendi ibilbide literarioa, Oskar Alegriak artzainekin egindako film labur bat ere proiektatu zen... Baina errepor-taje honetan fokua Ezpeldoi detektibearengan ipiniko dugu, hiru hamarkada igaro direlako kalera irten zenetik. Erretiroa hartu zuen, baina. Eta Atharratzen plantatu. Gu, Iratiko artzain etxoletatik abiatu gara bere urratsen atzetik, eleberriz eleberri.

BAT: 'BAKEAN ÜTZI ARTE'

1994ko udaberrian karrikaratu zen *Bakean ützi arte* (Susa) eleberria. Zuberoa eta Nafarroa zeharkatu behar zuen gasbidearen historia errealean oinarritu zen. Zubereraren hautu garbia egin eta lanketa berezi eta sakona eskatu zion nobela eman zuen argitara Itxaro Bordak idazle gazteak, sortzez baionarrak. Ordurako baziren hamar urte idazlea

plazara jalgi zela *Maiatz* aldizkariaren eskutik. Maiatz eta Susa argitaletxeekin hiruzpalau poema liburu idatzi eta eza-gutzera emanak zituen, *Basilika* (Susa, 1989) nobela ere bai.

Orduko paper zahar artean miatu, egungo sareetan digitalizaturik diren aldizkari artean xeheka ibili eta 1994ko maiatzeko ARGIA aldizkarian paperean idatzi eta egileak esandakoak ekarri nahi genituzke argitara. “1990 eta 1993eko Zuberoako borroka bat nahi nuen aipatu, gasbidearen aurkakoa, eta horrelako gai bat literaturara igarotzen ez bazen, lur hau burdinazko suge arriskutsu batek zeharkatzen zuela nehor ez zela ohartuko iruditu zait; ez da salaketa bat, baina esan beharra zegoen”. Hala adierazi zuen Bordak 1994ko maiatzean ARGIA-n. Ordurako, Maule eta oro har Zuberoa gertu sentitzen zuen. Oso nobela autobiografikoa zirudiela ihardetsi zion Ritxi Lizartza kazetariak, eguneroko bizipenei hertsiki loturik zegoelakoan. “Hala da”, erantzun zion Bordak: “Maule eta Zuberoa nola bizitzen dugun, gure ohizko ingurumena

nola osatzen den”. Elkarrizketa horretan-txe iragarri zuen liburuak segida ukanen zuela, bost istorio izanen zituela hurrengo lauzpabost urteetan, “errealitatea eta fikzioa nahasita, detektibe berarekin”. Bost nobela egitea zen Bordaren arrapostua, eta elkarrizketa horretan esan zuen lurraldez aldatuko zela nobelaz nobela.

Profezia zirudienak eman du zer irakurria gerora. Iparraldeko detektibe ospetsuena bilakatua zen Amaia Ezpeldoi. Zerbaiten jakin-minik zuenak harengana jotzen ei du beti; famatzen dutenez, ez baitu inoiz kasu bakar batean ere huts egin. *Bakean ützi arte* nobelan ezagutu zutenek ongi dakite hori. Gas hodia ez zuten sartzerik izan Zuberoa eta Nafarroako Zaraitzu artean 1993ko ekainaren 7an: Larrañen 105 zuberotar laborari eta militante engaiatuek obra geldiaraztea erdietsi zuten [ikus ARGIAko efemerideen kanala]. Aitor Bayo argazkilariaren zuri-beltzezko irudiak badira artxiboetan. Hori abiapuntu, Garbiñe Ubedak kolorez tindatu eta *Bakean ützi arte* nobelako azal laranja eta nabarmena bilakatu zen.



BI: 'BIZI NIZANO MUNDUAN'

Bigarren liburuaren atzealdean zera leitu ahal da: "Amaia Ezpeldoi sentimentalaren bigarren abentura liburua da, beraz, *Bizi nizano munduan*. Baina oraingoan askatu beharreko misterioak dexente korapilatsuago bihurtu zaizkio. Ez da erraza izango amaiera zoriontsua".

Prentsa idatzian, eta ARGIAN, eman zuen zeresana. Pello Zubiria kazetariak Mauleko posta atarian egin zuen hitzordua 1996ko udaberrian Itxaro Borda-ekin. Postaria ogibidez, gauez idazle. Militante beti. Bilkurak han eta hemen, eta desorduetan literatura sortzen. "Barnealdeko herrietan bizia bada komunikabideetan agertu ez arren", salatu zuen idazleak ARGIAko elkarrizketan.

"Bigarren aldikoz, Amaia Ezpeldoi xahar bat behar du bilatu, eta inkesta horretan ez da New York edo Kalifornian bezala tirorik izanen. Ezta krimenik ere. Urte luzez berririk eman ez duen emazte desagertu baten senar-ohiak engeiatzen du detektibea bere xerkatzeko". Hori da trama. Eta ikerketan abiatzen da

Ezpeldoi detektibe emaztea. "Hilzorian dagoen tokiko jendeen lekukotasuna ematea" izan zela idatzi zuen melankoliaz Xabier Mendiguren orduan idazle gazteak ARGIA aldizkariako literatur kritikan, *Mintzoaren odola* titulupean, 1996ko San Fermin eguneko zenbakia daraman aldizkarian.

Liburuaren azalak iduri luke Donapaleu eta Mauleko bideetan barna ikusten ahal diren soroen irudia. Berdeagoa ezin; gurea erabat. Literaturak ekarria. Jim Buckels artistaren lana da. Gehiago ikertu behar dugu azaletan.

HIRU: 'AMOREZKO PENA BAÑO'

Asisko Urmenetarena da *Amorezko pena baño* (Susa, 1996) liburuaren azala. Hori idorrak salatzen ditu Erriberako lurak, harat eginen du-eta Amaia Ezpeldoi, ezin hegorago.


Udaberrian Amaia Ezpeldoi protagonista zuen bigarren nobela, eta negurako, Durangoko Azokaren atarian hirugarrena. *Euskaldunon Egunkaria*-ren artxiboan haxe leitu dugu: "Oraingo

honetan, istorioa Bardeetako tiro poligonoan hasi eta Erriberan kokatzen da. Uritz intsumisioa du hariaren hastapena, eta berari tiro poligonoan jazotako gertakizunen inguruan hasiko da eleberria, Amaia Ezpeldoiaren abentura, Bardeetan egun hartan zer gertatu zen jakitea".

LAU: 'JALGI HADI PLAZARA'

Mende berrian eta internet aroan sartuta, *Jalgi hadi plazara* (Susa, 2006) nobelaren aurretik beste bi eman zituen argitara: Euskadi Sariak nabarmendu zuten *%100 basque* (Susa, 2001), euskaraz mintzo zen gasnaren afixak zirikatuta; eta *Zeruetako erresuma* (Susa, 2005). Horien ondoren hasi zen Amaia Ezpeldoi detektibea Euskaltzaindiako kontuak ikertzen. 80 urtetik hurbil zen Iparraldeko euskaltzain apez bat aurkitu behar zuen, Gexan Hiriart.

Auto deskapotable gorri elegante bat ageri da azalean, Zaldi Eroak marraztua. Pistola eskuan du gidariaren ondokoak. *Road movie* bat, edo komiki bat; irakurri arte, ezin jakin zer aurkituko dugun.



Euskaldunon Egunkaria urte batzuk lehenago itxia zuten espainiar juje, polizia eta agintariak. *Berria* jalgi zen kioskoetara. Kritiken hemerrotekan dira irakurgai Ibon Egañaren hitz hauek: “Amaia Ezpeldoi baionaratuak Jean d’Amou-ren bisita jasotzen duenean ekiten dio kontakizunari Bordak. Aita Euskaltzaindiko bilera batera Bilbora joan da Iparraldeko beste hiru euskaltzainekin, eta itzuli ez dela-eta, haren bila abia dadin eskatzen dio Jean d’Amouk detektibeari. Helburu horrexekin abiatuko da Ezpeldoi Bilbora, eta hala joango da hartzen nobela de-

tektibe nobelaren traza -edo, zehatzago, detektibe nobelaren parodiaren traza, generoaren ortodoxiatik urruntzen baitira pertsonaiak, espazioak edo tramaren hariak-. Hildakoak, maleta ebatsi misteriotsuak, pistolak, leku ospelak ez dira falta eleberrian suspensearen pizgarri, edonola”.

Egaña kritikariak honela jarraitzen du Bordaren ekarpenei buruz idazten: “Euskararen eta euskal literaturaren erdigune geografiko eta sozialetatik urrun dabil berriz ere Ezpeldoi, eta periferia geografiko horiek euskararen iruditeria da-

kartza oster a Bordak”. Kritikak, tesiak eta hipotesiak jaurtitzeko parada ematen dio irakurleari, ekarpenak egiteko.

Euskara eta lesbianismoa elkarlotuta datoz gero: “*Euskara eta lesbiana* hitzekin jolastuz ematen dio amaiera Bordak eleberriari, bi horiek baititu Ezpeldoi eta nobela osoak ardatz nagusi. Proiektu abertzalean sinesteari utzi dio detektibeak, Mauletik Baionara egiteaz bat, dioenez, eta euskararen eta euskalkien barruan aurkitzen du aterpe, non eta, euskara gutxitua den Euskal Herriko hiri eta landa guneean; euskara botere guneeetatik ezinbestez urrun dauden lekuetan, beraz, norbana-koaren askatasunari muga gutxiago jar diezaiokeen espazioetan”.

BOST: 'BOGA BOGA'

Baionan zabor biltzaile lanetan jarduteaz gainera, aspaldiko desagertze bat argitzen tematuko da Amaia Ezpeldoi bosgarren nobelan: *Boga boga* (Susa, 2012). Bada mende laurdena Jana Elgebeltz garaztarra azkeneko ikusi zutela, Santizpiritu zubian, 1985eko Baionako bestetan. Alabaina, Janaren anaia Danielek esan du bilatu duela leku guztietan, mundu osoa aspertu duela galdezka eta ez duela aztarnarik kausitu.

Oraingoan, elkarrizketa bideoan eman du ARGIAk; paperean argitaratutako elkarrizketa luzeagoren laburpena da. “Iparraldean abertzale batzuek izan duten eraginaz” idatzi duela aitortzen du idazleak. Engaiatua da Borda, zorrotza,





eta kritikak edo ekarpenak egiteko hitza baliatzen du, poemetan, nobeletan zein zutabeetan. Eta irratikroniketan, erre-zitaldietan, aurkezpenetan...

Azalean, Unai Iturriagak kolorez margotu zuen Santizpirita zubia. Baiona ttipia eta periferia elkartu edo banatzen ditu, Aturri ibaiaren bi magalak. Bi mundu agian, hiri bakarrean. Itxaro Bordak 2012ko uztaila hondarreko alean aipatzen duenez, "kontsumo gizarte kapitalista ikusteko eta kritikatzeko aukera ematen dio Ezpeldoiri". Eta desazkundera aldarrikatzeko ere bai, esate baterako, Baiona-Angelu-Miarritze artean autobusez ibilita beti. "Lehen lau nobeletan kotxea pertsonaia bat gehiago zen. Hone-tan ez. Badira alternatibak beste mundu bat sortzeko".

2011n ETAk armak utziak zituen. Den-bora bat geroago, zuloetan bildutako guz-tiak entregatu eta ekitaldi handi bat egin zen Baionan. Testuingurua ezagutzea ga-rantzitsua da nobela honi ekiterakoan. Bilorik gabe mintzatzen da Borda 2011n ere: "Orain, erakunde armatuak armak utzi dituenean, badugu ordua ahoan bi-lorik gabe historia aztertzeke. Ez da erra-za. Ez dakigu gaurkotasuna nola azter-tu. Nik, literaturaren bidez, fikzioan jarri nahi izan ditut alde guztietako mintza-lariak, beren ikusmoldea eman dezaten. Iritzi polifonia bat nahi nuen. Horixe da, hain zuzen, erreallitatean falta zaiguna. Eta literaturak badu abantaila bat erre-a-litatearekiko: aurrera dakioke".

ETA SEI: 'EURI ZITALARI ESKER'

Bost nobela idatzi gura izan zituen lehena 1994an kaleratu zuenean. Baina 2021ean, berak pentsatu eta uste izan zuenetik hagi-tzez berantago, eta emankorrago, bueltatu egin zen Amaia Ezpeldo. Detektibe jardun-etik erretreta hartzeaz. Honelakoxe agin-dua emana dio Joana Garralda maitaleari: Baionako apartamentuko puskak bildu eta harekin joango dela Atharratzera, mendial-dean bizialdi berri bat hastera.

Baina ezin geldirik egon Ezpeldo de-tek-tibeaz. Lanean jarriko da. ARGIA aldiz-karirako elkarrizketa prestatzen du Danele Sarriugarte idazle, itzultzaile eta elkarriz-ketagileak. Galdera edo komentario hau-xe egiten dio Bordari: "Erretiro baketsu bat irudikatu diozu Ezpeldoiri, Zuberoako mendi batean, maitalearekin". Bordak buel-tan: "Hori da, eta wifi konexioarekin". "Uste dut azken urte hauetan amets hori badela euskal jendartean, norbera bere nukleora biltzea -izan dadin familia, izan dadin bi-kotea- eta leku idiliko batean bizitzen jar-tzea, ahalaz Iparraldeko edo Baztango xoko batean". Baina Atharratzen plantatu arren, ez da geldirik egonen Ezpeldo. Ondoan iza-nen du Joana Garralda bikotea.

Agian Ezpeldoiri buruzko erreportaje hau ez litzateke idatzi beharko, guztiok Ez-peldoiren urratsen gibeletik ariketa bera eginen bagenu. Nobelak irakurri, azalak az-tertu -Euri zitalari esker izenburu musikala duen azken honek Ainara Azpiazu Axi-ren koloreak eta marrazkiak ditu portadan-, el-karrizketak irakurri edo entzun.

Iratitik mezua igorri diogu Amaia Ezpeldoiri, telegramez. Hitzordua egin dugu Erratzun. Atharratzera joatekoak gara oinez, bortutik. Motxilan literatura apur bat eramanen dugu, eta gasna zen-bait dastatzeko. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

EUSTAKIO MENDIZABAL 'TXIKIA'

'HITZ ETENA'

Erailko dutenaren literatura PAUL BEITIA ARIZNABARRETA

Hilezkortasunarena da auzi inportanteenetariko bat literaturan. Ez naiz soilik betiereko bizitzaren gai literarioaz ari –gaztetasunaren iturriari buruzko kondaira zaharretatik hasi, Dorian Graytik pasa eta distopia garaikideetaraino, fikzioaren historia osoa zeharkatzen duen gai horri buruz–, ezpada literatur bidezko hilezkortasunaren praktikaz. Belau-naldiz belau-naldiko idazleen obsesioetako bat izan da irautearena: amestu izan dute beren obrak, beren liburuek, lerroren batek bederen, iraungo duela beraiek hil eta gero ere; eta, ez gutxitan, beraiek irautea amestu izan dute, beraien izenak, beraien figurak, beraien mitoak. Horra hilezkortasun literarioa: idazlearen gorpua lurpean usteltzen ari delarik, bizialdian idatzitako lanek eta egindako balentriek irautea bizirik, betirako agian.

Gerotik Gerora atal honetan klasikoei begira jarri ohi gara eta nahitaez galde-tu izan dugu etengabe irauteari buruz: zergatik irauten duten obra batzuek eta beste batzuek ez, nola iritsi zaizkigun gaurdaino, merezi ote duten irautea. Sarritan irudi lezake obra batek denbo-

ran irautea justiziazko irizpide natural baten ondorio dela, irakurtzea merezi duen literatura eta merezi ez duena bereizten dituela, idazle onak eta txarrak. Badakigu, ordea, lehenago esan izan dugu, literatur kanonean bestelako faktore batzuek izan ohi dutela eragin handiagoa eta boterearekin daukala, jakina, zerikusia, balizko kalitate-irizpide natural batekin baino. Roberto Bolañori entzuna diot, ondo akordatzeko banaiz, idazleen irauteko ametsa ergelkeria hutsa dela: garai jakin batean idazle ontzat jotzen direnak ahaztura erabatekoan erortzen direla pare bat belau-naldi igarota, eta Shakespeare bera ere ez dagoela horretatik salbu.

Irautearen ametsa, ordea, egon izan da eta badago. Baliteke, gainera, den-deno egokitzea kezka hori, gure bizialditik geldituko den zerbait uztearena, eta baliteke hortik bertatik sortzea betebeharraren zentzua. Den-denok baitakigu noizbait hilko garela, eta agian horrexek bihurtzen baitigu idatzi beharra –esan beharra, egin beharra– urgentziazko. Zentzu hori denongan egongo da, *“baiñan eriotz guziak / ez dute erranai berdiña”*. Eustakio Mendizabal Txiki-

kia-k esana da, “Gizonen pausoak” izeneko poeman.

Mendizabalena berarena kasu egokia izan daiteke hilezkortasunaren auziaz pentsatzeko, Telesforo Monzonek kanta ezagunean Kantauri itsasoari eskatu baitzion harro zedila eta haren “betiko loa” –1973ko apirilean, 28 urte baino ez zituela, poliziak balaz emana– “betiko kanta” zezala.

Eustakio Mendizabal Itsasondon jaio zen, Goierri (Gipuzkoa), 1944an. Euskadi Ta Askatasunako militantea izan zen eta horrexegatik da ezaguna. Ez alferrik: 1968an herritik ihes egin zuenetik eragin nabarmena eta aitor-tua izan zuen erakundearen hurrengo urteetako jardunean. Lehenbiziko bahiketetan parte hartu zuen; 1969ko Basauriko espetxetik ihesa planeatzen lagundu zuen eta berak ere behin baino gehiagotan egin zien ihes poliziar, konfinamenduari, balei; hil zuten garaitsuan Carrero Blancoren kontrako ekintza prestatzen ari omen zen, eta, ekintza burutu zuen komandoari, horrexegatik jarri omen zioten bere izena. Txikiaren mitoa, beraz, bizi zen artean sortu zen eta hil ondoren handitu.

Ez da hain ezaguna, ordea, eta baten bati harritzekoa ere gertatuko zaio, haren poeta izaera. Txikiak gatzetatik erakutsi zuen kulturarekiko eta batik bat hizkuntzarekiko kezka, maitasuna eta tema. Ezagutu zutenengandik dakigu harapatzen zuen lehen euskarazko liburua irakurtzen pasatu ohi zuela denbora, euskara-eskolak eman zituela Goierri eta Martuteneko kartzelaldian ere bai. Fraile-ikasle zebilela Lazkaon hasi zen lehen poemak idazten. Jon Aranok, Txikiaren herrikideak, bildu eta apailatu zituen poema horiek *Hitz etena* liburuan, Susa argitaletxeak 1992an argitaratua, eta altxor bat lurpetik atera eta guztion esku jarri izan balu bezala izan zen.

Erljio-kutsukoak dira bildumako olerki gehienak, frailegai gazte bati dagozkionak. “Jaunaren gorputza hartzen dutenekin komulgatzen duten poemak”, diosku Aranok. “1970etan konprometituak bezala ezagutu direnak” ere badira, ordea, “bere azken aldikoak, kantagintzaren mesedetan jarri zituenaz aparte, modernotasun-izpi gehiago duten poemak”. Hor topatuko ditugu Maite Idirinek edo Guk taldekoek kantatutakoak, “*Ene herria / Ez etsi / Ez da oraindik iritsi / Baiña / Ez etsi... / Eta eutsi! / Noizbait beharko bai-*

ta iritsi”, eta badirudi gaiak eta idazketa zehaztu ahala, Eustakioren bizitza ikusten dugula zehazten.

Estibalitzeko komentuan ezkutatu omen zen Txikia 1968ko udan, alde egin behar izan zuen lehen une batean. Hogeita hamaika urte lehenagoko udan, beste poeta bat zeukaten frankistek preso handik kilometro oso gutxira, Gasteizko espetxean. “*Goiz eder onetan erail bear nabe / txindor batek txintak gozotan naukela?*”. Nekez aurki daiteke Lauaxetaren azken hitzen ironia hori baino duintasun indartsuagorik: imajinatzen dugu nola dagoen ziegan, erailko zutela jakitun, eta nola otutzen zaizkion bertso horiek. Lauaxetak bazekien goiz horretan hilko zutela; Txikiak, ordea, ez. Edo agian bai, Jose Manuel Pagoaga *Peixoto*-k, Algortan erail zutenean berarekin zegoen kideak, kontatzen duenaren arabera: “Egun batean bere etxera joan eta galdetu nion ea zer egin behar genuen. ‘Orain, kanpaina hau eta gero beste hura’. Eta nik: ‘Eta gero?’. ‘Gero halako eta bestelako’. ‘Eta gero’ eta segi, eta halako batean: ‘Eta gero?’. ‘Borrokari hil’, horrela, ahotsik mudatu gabe”.

Nondik ateratzen da horrelakoetan idazteko adorea, azken hitzetarako determinazioa, etsipenik beltzena gainditzeko indarra? Mikel Paredesi entzun diot azkena, Txiki eta Otaegiri buruzko *Berria*-ren dokumentalean, galdezka ez dakiela zer pasako ote zaion burutik hiltzera kondenatutako bati. Hori xe izan daiteke gudarien literaturaren, erailko dutenaren literaturaren koska: zertarako esan ezer heriotza hain ziurra denean? Bobby Sandsek, IRAko militante eta poeta irlandar famatuak, “nondik ernetzen da mentalitate egokia?”, galdetzen dio bere buruari bizitza kenduko zion gose-greban idatzi zuen azken egunkari-sarreran. “Agian, askatasundesiratik”, erantzuten du segituan, “askatasun-desira suntsitzeko gai ez badira, ez dira zu suntsitzeko gai izango”. Zail da Sarrionandiak *Kartzelako poemak* liburuan baino argiago esaten: “*Poema baldar eta tristeak igual bai, baina / koldar leziorik ez diegu ondokoei utziko*”.

Bizitza borrokari emanda bizi denak han-hemen idazten ditu poema baldarrak eta mezuak, paper-txataletan, koaderno zaharretan, ahal bezala, galduko zaizkion edo Poliziak errequisatuko dizkion beldur, eta horrelaxe iristen zaizkigu gugana. Gogoan dut, esaterako, Iñigo Astizek proposatzen zuela Sarrionandiaren obra haren militantziak utzitako bizi-baldintzen arabera irakurtzea: nola kartzelan eta ihesean zegoenetan poemak, ipuinak eta testu laburrak argitaratu zitzakeen, eta nola ez zuen beranduagoko obra luzerik idatzi ahal izan harik eta erbestean finkatu zen arte. Ez dakit nola salbatuko ziren Lauaxetaren azken poemak eta Sandsen egunerokoa, baina badakigu Txikiaren poemak haren senideek gorde zituztela eta, idazten jarraitu bazuen ere, azken urteetakoak ez daudela oraingoz eskuragai. “Joera dena puskatzekoa, hautsi eta su ematekoa izan da”, Txikiaren koinatuaren hitzak biltzen ditu Aranok. “Ez nazatela salatu paperek, aztarnak ez uztea, ahaztu daitezela nitaz. Eta batek daki zenbat paper-puntta galdu diren”.


Gudarien literatura hitz etena da, nahitaez: klandestinitateak etendakoa, kartzelak, torturak, errepresioak, literatura baino egiteko inportanteagoek etendakoa. Eta etenik handiena, heriotza.

Hitza eteten da, baina zerbaitek irauten du. Horretan datza erailko dutenaren indarra, bai idaztekoa eta bai bizitzekoa, heriotza bezperan ere: badela literatura baino inportanteagoa, are, norbere bizitza bera baino inportanteagoa denik. Baliteke guztiek idatzi izana Vallejoren Pedro Rojas hark bezala, airean atzamarrarekin, baldar, agian. Baina duintasunak gainez egiten die haien hitzei. “*Ideal gabe morroi iltzeak / ez du deus ere bali...* / *Erriagatik il danak aldez / bizitzari argi dagio*”. Txikiaren hitzak dira, baina entzuten dira Lauaxetarenak edo Sandsenak balira bezala, Juan Paredes Manot *Txiki*-ren azken gutuneko “*confiamos en vosotros*” (zuongan dugu konfiantza) hitzak bezala. Borrokak iraun behar zuen beraiek baino lehenago eta, hitza eten arren, zerbaitek irauten du oraindik, gaurko eta biharko, hilezkor. ●





Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Lau, ikol. | ... Pina, gidoigile nafarra. **2.** Oinazea eta harridura adierazteko erabiltzen den hitza. | Uhin. **3.** Auskan. **4.** Argazkiko mendia. **5.** Huts. | Batean, batera. **6.** Inspirazio iturria. | Uhin bidezko igorpen, irrada. **7.** Erosta, auhen. | Entzumenaren galtze. **8.** Landare bati adarrak ebaki. | Ordu onean.

GOITIK BEHERA:

1. Kulunka. | 1501, erromatar zenbakiz. **2.** Itxarote. | Zeukan. **3.** Elbarritasuna. **4.** Abioia lurretik altxatu. **5.** Nafarroako udalerrria. | Sistema operatiboa. **6.** Oiz mendian jaio eta Gernika inguruan itsasadar bihurtu eta padura handiak sortzen dituen ibaia, Urdaibai Biosfera Erreserba eratuz. | Gaixo. **7.** Burdin hari. **8.** Gizonezko izena. **9.** Zinemako estralurtar famatua. | Purgagarri bezala erabili ohi den belar. **10.** Zut. | Lehor, agor. **11.** Neuri. **12.** Iratze. **13.** Ozentasunez, ongi entzuteko moduan. **14.** Ahaire, doinu. **15.** Zein unetan.



Sudokua

ERRAZA								
			9	3	8			6
2			5	6		7		4
		6	7	4			5	9
4	2	1	8		7	3		
	5				3	9		8
8	9	3				4	7	
9	6	2			4	1		7
		8	2	7	6	5		
	3		1		9			2

ZAILA								
1	9				5			8
				9	1	5		
	5	3		7				
						7		6
		6	1		4	9		
2			5				8	
6								5
3	1	8						2
				8		1		

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Salneurri, kostu	BALIO
Trebea	
Erromesaldia	
Ekaina (Bizkaian)	
Olibondoaren fruitua	
Bola-jokoko pieza	
Iskanbila, zalaparta	
Azeria	
Elurrezko etxea	
Karratu	
Apala, xumea	
Sandia, berendia	
Taxu, molde	TAILU

EBAZPENAK

DE ARRAINIK HOBERENA
AHAL DENA, ITSASOAN
ATZOTITZA

9	7	5	2	2	1	3	4
3	1	8	4	5	9	6	7
5	6	5	1	3	8	8	2
2	3	6	5	6	7	4	8
7	8	6	1	2	4	9	5
5	4	1	9	3	8	7	2
4	5	3	8	7	6	2	1
4	5	3	8	7	6	2	1
8	6	2	3	9	1	5	4
1	9	7	2	4	5	3	6

ZAILA

7	3	5	1	8	9	6	4	2
1	4	8	2	7	6	5	9	3
9	6	2	3	5	4	1	8	7
8	9	3	6	3	2	5	4	7
6	5	7	4	1	3	9	6	2
4	2	1	8	9	7	3	6	5
3	1	6	7	4	2	8	5	9
2	8	9	5	6	1	7	3	4
5	7	4	9	3	8	2	1	6

ANAGRAMAK

ERRAZA

11. NIRI, 12. GARO, 13. OZEN, 14. AIRE, 15. NOIZ.
ALANBRE, 8. LANDER, 9. ET, AHAGO, 10. XUT, IDOR,
PERLESIA, 4. AIRERATU, 5. OKO, OS, 6. OKA, ERI, 7.
GOITIK BEHERA: 1. ZABU, MDI, 2. AIO, ZUE, 3.
ZORIONEZ.
MUSA, ERRAPIAZIO, 7. DETTORE, GORREI, 8. INAUSI,
BORROKAN, 4. LEKANDA, 5. ZERO, BEHINGAN, 6.
ESKER-ESKUI: 1. ZAPAL, ALEX, 2. AIEI, OLATU, 3.



Leize bat aterpe

LEIRE IKARAN

Larunbat eguerdia da, eguraldi aldaketa iragarri dut irratiaik, eta kotxean abiatu garenerako haize zakarrak gogor jotzen du. Segituan hasi da euria kotxeko kristala kolpatzen. Bustita eta lanbro-lainoen tartetik pasatu dugu Lapurdiko muga. Izan ere, Usopop disketxe eta elkarteak Marrumaka jaialdia antolatu du Sarako leizeetan. Eta guri, jaialdi hau, aspaldi ikusi gabeko lagunekin batzeko aitzakia ezin hobea iruditu zaigu. Uste dut, gainera, bere misterio eta isiltasunarekin, kobazuloa badela intimitatea zabaltzeko lurra, eta konfiantzarako sabaia ematen duen leku horietakoa.

Euri langarra ez da gelditzen, baina hamar laguneko taldea eta bi baso ardo nahikoa izan dira barruak berotu eta leizeetara sartzeko. This is the Kit, Mabe Fratti, Kaskezur, Los Sara Fontan eta Ezezez taldeen kontzertuak aurretik.

Konturatu orduko iluna dago lieze kanpoan. Gaua iritsi dela konturatu naiz guztiok gabiltzalako Los Sara Fontan-en erritmo nahasi eta esperimentalekin saltoka. Ez dakit azaltzen zer egiten duten,

edo ze “estilo” den haiena, esan dezakedana da: “Ze ondo pasatu dugun kobazulo baten barruan horrelako musikarekin dantzan”. Eta guretzat, nola ez, goizegi bukatu da guztia. Etxera joaten ez daki-gunon betiko leloa.

Biharamuna. Ez dakit igandea delako, eguraldia goibel samar dagoelako, edo bart gaua nahi baino gehiago luzatu dugulako, baina badago horrelako tristura sentsazio bat gure artean. Ea musikak berpizten gaituen.

Lumi taldearen ikuskizun bereziak zabaldu du kontzertu segida, ondoren etorri da Penelope Trappes ekoizle eta musikari australiarra. Kuriosoa egin zait bere lana; kontzertu batean baino, performance baten aurrean nengoela iruditu zait momentu batzuetan.

Ibil Bediren txanda iritsi da, eta momentu honetan direna erakustera gerturatu dira, kobazulotik atera, gehiegi irten gabe, berriz barrura itzultzeko. Izenik gabeko abestiak, eta guztiz zehaztu gabeko buelta eta letrak direla sinistu beharko diegu, hala ez badirudi ere.

MARRUMAKA JAIALDIA

NON: Sarako leizeetan.

NOIZ: urriaren 4an eta 5ean.

Lokatzaarena eta *Atera* kantuekin hasi dute kontzertua; eta ez dakit nola izan den, baina momentu batzuetan sentsazioa izan dut kobazuloak berak anplifikatzen zituela taldearen soinuak, batez ere bateria bakarrrik zegoen uneetan. *Zitekeenarena* abestiaren hasieran, bazirudien bonboaren *reverb*-a kobazuloaren paretek itzultzen zuten oihartzuna zela.

Instrumentu aldaketak ugariak izan dira taldekideen artean, orain arte baino gehiago, eta badirudi zuzenekoaren hipnosian sartzen laguntzen duela horrek. Kontzertuan zehar jo ohi duten Miceren bertsioari ere merezitako aukerak eskaini ostean, Ibon RGren abesti bat ekarri dute eurenera: *Egunean*.

Irunberriko kobazulora bueltatuko direla esanez bukatu dute kontzertua, eta okurritu zait hitz-joko polita dagoela, Sima-Ibai Osinagaren estudioa ere badelako leize bat, bertikaltasun handikoa, normalean lur azalean sortu eta sakonune handi bat duena lur azpirantz. Eta horrela, taldearen kontzertuak, sima baten antzera, norbere zulora sartzera eraman gaituela. ●



MUSIKA

Opera udazkenean

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBE-REN OPERA DENBORALDIA

NON: Bilboko Euskalduna Jauregian.

NOIZ: 2025eko urritik 2026ko maiatzera.

Udazkena hasi eta OLBEren – Operaren Lagunen Bilboko Elkartea – opera denboraldi berria hasiko da. Elkartek 2025eko urritik 2026ko maiatzera bitartean bost izenburu enblematiko eskainiko dizkigu. Beti bezala, ondo aukeratuta. Ia beti bezala, garaikidetasunari gutxi edo batere ez emanda.

Lerro hauetan denboraldi berri honek ekarriko dizkigun lehen bi operak komentatuko ditut. Lehenengoa, Giuseppe Verdiren *La forza del destino*, konpositorearen heldutasun opera da. *Un ballo in maschera* egin eta lau urtera estrenatu zuen, bere ekoizpenaren une oso berezian, garai hartako beste mundu batzuen exotismoari begiratzeko gustuarekin bat zetorrena. Calatravako markesaren alaba Leonoraren eta inken errege-familiaren ondorengo Don Alvaroren maitasun zorigaiztokoak kontatzen ditu.

Bitxikeria gisa, opera hau Errusiar Inperioko hiriburu San Petersburgon estreinatzekoa zen, 1861eko abenduan; baina antzezpena bertan behera utzi eta hurrengo urteko azarora atzeratu behar izan zen Bolshoi Kámenny Antzokian (ondoren, Mariinsky). Hori izan zen "zorte txarrez" betetako anekdotario baten hasiera, opera honi beti lotuta egon dena. Izan ere, *La forza del destino* -ren inguruan legenda beltz moduko bat dago, produkzioaren eta eszenaratzearen esparruan arazo ugari izan direla iradokitzen duena. Dirudienez, benetako heriotzak gertatu dira eszenatokian. Espero dezagun, OLBEk eskaintzen duen produkzioan, dena normaltasunez gertatzea.

Oraingo honetan, Carmen Solis sopranoa eta Angelo Villari tenorea izango di-



tugu bakarlari, besteak beste. Ekoizpen honek 36ko gerraren erdian jartzen du ekintza, hain modan dagoen denbora-birkokapenaren jokoari jarraituz. Opera hau Euskaldunan izango dugu ikusgai urriaren 25, 28 eta 31n, eta azaroaren 3an.

OLBEk 2025ean ekarriko digun bigarren opera *Adriana Lecouvreur* da, Francesco Cilearena. Tragedian amaitzen diren grina, intriga politikoa, jelsia eta maitasun gurutzatuen istorio sutua da, pertsonaia historiko bat ardatz duena: Adrienne Lecouvreur aktorea, bizitza sozial gora-beheratsu eta eraginkorreko emakumea, pertsonaia independentea, maitalez betea; horietako asko, publikoki. Paper tragikoetan nabarmendu zen beti, eta bere lan onarekin lanbidea duindu zuen. Hori gurtia dela eta, eragin handia izan zuen

bere garaiko gizartean, eta zeharka, emakumeen eskubideen bilakaeraren erreferente bihurtu zen.

Datu hauekin, ziur aski jakin-mina eta gogoia izango duzue Euskaldunara hurbiltzeko, Cilea konpositorearen opera ezagun honetaz gozatzera. Mario Pontiggiak zuzendutako ekoizpen ikusgarri bat izango dugu, Mario Armiliatoren luxuzko zuzendaritza musikal batekin egingo dugu topo eta lehen mailako bakarlari hirukote batekin: María Agresta sopranoa, Silvia Tro Santafé mezzoa eta Jorge de León tenorea. Emanaldiak azaroaren 22, 25 eta 28an eta abenduaren 1ean izango dira.

Beraz, opera gustatzen bazaizue, edo gozatzen eta ezagutzen hasi nahi baduzue, urrezko bi aukera hauek izango dituzue. Aprobetxa itzazue. ●



IKUS-ENTZUNEZKOAK



FILMAFFINITY

'Los lunes al sol' edo lana autorrealizazio gisa

 JOSU IRAOLAGOITIA CARMONA

Le *Lundi Au Soleil*, Claude François artista frantsesaren 1972ko kanta arrakastatsua, herrialde hartako langileek kontsignatzat hartu zuten 1970-80ko. hamarkadetan egondako greben harira. Kanta langilearen ametsa den denbora libreaz mintzo den bitartean, modu ironikotzat erabili zuten mezu hori, langabeziaren ondorioz denbora libre behartu batean bizi zirenak deskribatzeko.

Idea hori Espainiak urte batzuk ge-roago izango zuen egoerara ekarri sortzen du filma Fernando León de Aranoak. Penintsularen iparraldeko ia edozein leku izan zitekeen protagonista, "industria birmoldaketa" delako eufemismoa erabilia ehundaka langileren kaleratzea ekarri zuen fenomeno horren garaian kokatzen baita pelikula.

Hasiera ia disonantea duela esan daiteke. Godoyren musikak, armonika eta gitarra soinuez, lasaitasuna, patxada eta udako arratsalde epeletako nagieria dakartza gogora. Ostera, León de Aranoak musika hori Xixoneko (Asturias) NAGISA ontziolako beharginek egindako protesten irudiekin lotzen du. Eta, beharbada, horretaz doa kontua: ezer gertatzen ez dela ematen duenean ere zeozer gertatzen dela konturatzeaz.

Filmak industria birmoldaketa horren biktima izan diren lankide ohi talde bat aurkeztu digu. Hiru urte pasa dira lana egiten zuten ontziola itxi zutenetik produkzioa Koreara eramateko, eta paradigma horretan protagonistek bizitzeari utzi diote bizirauten hasteko. Batzuk oraindik langabezian daude, beste batzuk lan berri bat dute, eta badaude beraien negozioa zabaldu dutenak ere. Dekadentzia da nagusi. Eta miseria.

'LOS LUNES AL SOL'

(ASTELEHENAK EGUZKITAN)

FERNANDO
LEÓN DE ARANO

2002

ZER: Filma

HERRIALDEA: Espainia

IRAUPENA: 114 minutu

NON IKUSI: Prime Video, HBO
Max, Movistar eta Filmin

Ez da pelikula polita; ez da pelikula erraza; ez da pelikula eroso; ez da pelikula alaia; eta amaitutakoan deseroso laga ninduen. Orduan, zergatik ikusi?

Beharbada, protagonistek duten karismagatik; agian, elkarrizketen sarkontasun sinpleagatik; akaso, gizarte eta erlazio rola lantzeko duen sentibiltateagatik; apika, lanak duen garrantzia aztertzen duelako, hura gabe, zoritxarrez, zer garen eta nora goazen jakin ezta garatzen garela, gizartetik kanpo; edo soinu-banda ezin egokiago bat entzuteko.

Nik obra hau gomendatzeko hautua egin badut, deserosotasun horrexengatik da. Bizitza osoa derrigorrean egiten dugun hori kentzea, derrigortasun hori izatea baino kondena handiagoa dela aurpegiatu didalako. ●

Nik ez dut Louvren ezer lapurtu

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Hori behintzat argi gera dadila hasieratik. Eta Manuk ez dit berri deitu. Okupatuta ibiliko da, noski. Enteratuko zineten: igandean tipo batzuk joan ziren Louvre museo-ko Apoloren galeria aldamenerraino, eskailera batekin leihotik, *hop*, sartu, zerra zirkularrekin hipersekurizaturako beirak puskatu eta hantxe itzuli ziren berriz etorritako bidetik azkarputan, Frantziako errege eta enperadoreen diamante eta zafiro kolezio inportante bat zakuan eramanda. Dena zazpi minutuan –Errepublikako lehen ministro batek karguan irauten duena baino gutxiago!–, exekuzio ia perfektua: ihesaldian Eugenia de Montijoren korroa erori izan ez balitzaie, Arsène Lupinen lana izan dela pentsatuko luke batek baino gehiagok.

Ez kaka eta ez zirin geratu da Frantzia osterera ere, mundu guztiaren aurrean barregarri. Niri, egia esan, hori lau t'erdia axola zait –ezta bost ere, alegia–, baina kasuak hipotesi batzuk probokatu dizkit eta *Monsieur le President* orain ez dagoenez horiek entzuteko moduan, zuei kontatuko dizkizuet.

Ea: esan da lapurtutako piezen balioa kalkulazina dela. *Libération*-en galderei erantzunez, Corinne Herskovitch adituak esplikatu du, ebidenteki, ezin direla saldu dauden bezala; baina diamanteak erauzi eta banakabanaka merkatuan jartzea ere osso zaila dela, mota horretako harribitxiak superdetailatuki identifikatuta daudelako. Horrek pentsarazi dezake lapurretaren autore materialak beste norbaiten enkarguz aritu direla, inor ez baita igande batez hain goiz jaikitzen gero inon kolokatzerik izango ez duen merka ebasteko, jakinda, gainera, txukelak eskua gainean jartzen badizu txupatu beharko dituzula urte batzuk malkoen katedralean.

Orduan, enkargua egin duena nor den pentsatzen hasi behar dugu. Abe-

rats okitu bat izan liteke, asuntuz arduratu den komandoa *low cost* ez baitzen izango. Imajina dezagun milioietan, trilioietan igeri egiten duen norbait, hainbeste diru daukana, ezen puntu batetik aurrera dirua gauza arruntzia iruditzen baitzaio. Krisi existentziala Dubaira daraman jet pribatuan: “Beste millionetti guztiek egiten dituzten gauza berberak egiten ari naiz. Hutsik sentitzen naiz. Ez daukat pertsonaliterik, ez naiz inor. Lortuko banu sikiera gauza bat munduan nik bakarrik eduki dezakedana, hiperluxuzko objektuaren aura ukigabe hori daukana... Zerbait, nola esan... dirua baino diruago dena”. Klink: ideiak bata bestearen atzetik kateatzen zaizkio eta operazioa martxan jartzeko dark webean bilatzea besterik ez du.

Baina itxoin: eta lapurretak helburu politikoak balitu? Eta Frantziaren ondare historikoan atzaparra sartzea estrategia bat balitz, nazioartean hartu duen jarreraren batean hexagonoa atzera egitera behartzeko? Eta harribitxiaren lapurretaren aurrean baino, haien

bahiketaren aurrean bageunde? Mezu bat iritsi da Macronen whatsappera. Bideo bat. Pabilioi gris batean grabatua dirudi. Giro-soinua. Ez dago ezer identifikagarririk lurrean, hormetan. Irudiaren erdian, joan den igandean Louvretik desagertutako piezak. Kamerak 180 gradu biratu du: pabilioi gris bera, baina orain errepideetako lurra berdintzeko erabiltzen den zapalgailu horietako bat ageri da. Martxan jarritz gero, aurreraka hastean lehen ikusi ditugun harribitxiak txiki-txiki egingo lituzke. Eta motorra piztu du. Beltzera itzali da irudia. Mezu bat agertu da. Hebreeraz idatzita dago.

Niri, hala ere, bada gehiago gustatzen zaidan beste aukera bat: inork ez du Louvren lapurretarik egin. Museoak bere burua promozionatzeko publizitate-kanpaina baten parte da albistea. “Lapurtu dituzten arte ez dituzu bitxi hauek ikusi? Itzali pantaila eta zatoz benetako zerbait ezagutzera”. Sekulako arrakasta izango du. Hori bai, gure Manuri ia infarto bat eragin dio. ●




#14.EDIZIOA



euskarabildua

TEKNOLOGIA • BURUJABETZA



NORK GOBERNATZEN DU INTERNET?

EUSKAL KOMUNITATE DIGITALA
ERRONKA GLOBALAREN AURREAN

Azaroaren 4an
09:00etan

📍 San Telmo Museoa
(DONOSTIA)

IZENA EMAN:



www.euskarabildua.eus

2026 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Urteko gaia: **Fruitu arbolak**



Prezioa **15€**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik
gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Lantokirako eroso eta atsegina



Ikastetxerako material hezitzailea



Baratzean eta orokorrean landareekin
egitekoak ilargiaren arabera



Sasoiko eta bertako erosketa antolatzeko